

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2023ko martxoak 31 - 1265 zenbakia

PASILLOA EGITEKO PREST

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak
Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

Tel. 943 20 83 26 / 807 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34
F. Calbetón, 4 - 3. solairua jorgevega.eibar@gmail.com



Denolan

ASESORIA EMPRESARIAL
AHOLKULARITZA



Muzategi, 1 - Eibar
943 20 16 80



Pedro Migel Urruzuno, 31 - Elgoibar
943 74 18 00

Lan-aholkularitza ■ Zerga-aholkularitza ■ Kontabilitateko aholkularitza ■ Merkataritza-aholkularitza

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA
Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2
Tel. 943 20 41 94
Fax. 943 82 00 06
egurenyasociados@gmail.com

AHOLKULARITZAK

GAURVE
Fermin Calbeton 13-15
Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.es
consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4
Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA
Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Osasun sistema publikoaren aldeko mobilizazioa, Eibarko Pentsionista Taldeak, Eibarko Ernaik, Matraka Neska* Gazte Taldeak eta Nalua Eibarko Feministek antolatuta, Osakidetzak eskaintzen duen zerbitzu publikoaren kalitatea herritarren kezka nagusienetarikoa dela ikusita, egoerari konponbidea bilatzea



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285

FAXA

943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus

PUBLIZITATEA@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Pedro Ceinos

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundiak

Eskutitzak



Zu zara Eibar eres tu

PSOeko liburuskajaso dot etxian.
Zoragarrixa dana. Baña galdera bat dakat.
Euskerazko bersiñua nun jirau neiken esango destazue?
Eskerrik asko.

Daniel Astarloa Aierbe

Datorren astean ez da alerik izango

Aste Santua dela-eta, apirilaren 7an ez duzue alerik izango zuen buzoietan. Hurrengo alea hilaren 14an, hurrengo barixakuan, jasoko duzue betikoari jarraituz.

Erredakzioa

Astean esanak



Euskararen erabileraren %15arekin askoz gertuago gaude irlandiararen erabileraren %1etik islandieraren %80tik baino. Euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen garen hiztunak euskal herritarren %7 gara, 195.000 herritar; 222.000 hiztun (%8) bi hizkuntzatan antzera moldatzen dira; eta 2.230.000 (%85) erdaraz hobeto. Horren ondorioz, herritarren arteko elkarrizketen %82 gutxienez, derrigorrez erdaraz izan behar dira.

– Ezin dira gutxietsi gure erabilera datuak: euskaldun asko, erdaraz hobeto moldatzen bada ere, euskaraz egitea erabakitzen duelako, eta haien seme-alabei euskara transmititzea. Euskaltzaletasun sozial sendoa dugu, guk geuk ere baloratzen ez dakiguna askotan. Garai guztietan gehiago izan dira euskara transmititu duten euskaldunak transmisioa eten dutenak baino. Horri esker gaude bizirik. Dagoen hizkuntza-gaitasunaren zorurako, asko erabiltzen da gaur egun euskara.

– Euskal Herrian bizitzeak gaur egun erdaldundu egiten du, batez beste. Euskaldunek euskaraz egiten dute bizitzaren alor guztietan %10etik gora, baina telebista ikustera-koan %2: hori desastre hutsa da. Bidegurutzean gaude, baina heriotzatik hamabost puntuko distantzia dago eta osasun beteko hezkuntza izatetik 65 puntukoa.

IÑAKI IURREBASO, soziologia

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ONDU → Marka bat gainditu. "Goizekuen markia arratsaldekuak errez ondu dabe". Hobetu. "Ondu destaz agindutako gauza guztiak". Jatekoa luzaro irauteko moduan prestatu, ketan edo gatzetan esate baterako. Baita jatekoa prestatzen gozatzeko gaiak ezarri ere, olio, gatzez eta ozpinez. "Makilaua gatzakin eta leku askotan keiarekin ontzen dabe"



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 31 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarría, 4)	ZAPATUA 8 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ZAPATUA 1 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)	DOMEKA 9 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
DOMEKA 2 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarría, 4)	ASTELEHENA 10 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ASTELEHENA 3 EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)	MARTITZENA 11 EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
MARTITZENA 4 EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)	EGUAZTENA 12 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
EGUAZTENA 5 EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)	EGUENA 13 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarría, 4)
EGUENA 6 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)	BARIXAKUA 14 EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
BARIXAKUA 7 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)	GAUEZ BETI , 2023an, Castaño (J. Etxeberría, 7)

Hildakoak

- Eusebio Alegre Gonzalez. 77 urte. 2023-03-25.
- Begoña Argote Gonzalez. 67 urte. 2023-03-28.
- Julian Toribio Dominguez. 72 urte. 2023-03-28.
- Maria Galnares Alonso. 97 urte. 2023-03-29
- Trinidad Peypoch Oiarzabal. 81 urte. 2023-03-29

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20



Errefuxiatuei jaten emateko 12.000 kilo janari bildu ditu Zaporeak erronkak

Zaporeak erronkaren kanpaina ixteko zapatuan Ermuan egin zen ekitaldi arrakastatsua eta gero, eguazten arratsaldean eman zuten ezagutzera Debarrena mailan egin den kanpainaren emaitza, antolatzaile eta laguntzaileen partaidetzarekin Urkotronikaren egindako ekitaldian: aurten estreinekoz eskualde osora zabaldu duten erronkari esker 12.000 bat kilo janari bildu dute eta honezkero ondo antolatuta eta paketatuta daukate guztia, Greziara bidaltzeko prest. Horrez gain, bidalketa gastuei aurre egiten laguntzeko

8.000 euro inguru bildu dituzte, rifa eta bestelako en salmentari esker, eta diru horri oraindik jasotzen ari diren donazioena gehitu behar zaio. Debarreneneko Zaporeak erronkako arduradunek eskerririk beroenak eman nahi dizkiete modu batean edo bestean parte hartu duten herritar guztiei, eta datorren urtean erronka berriarekin itzuliko direla aurreratu dute.

Bestalde, zapatuan egin zuten zozketan, hauek dira saritutako zenbakiak: 0148, 0528, 2275, 2771, 2817, 2826, 3276, 3303 eta 3968.

Oparitu Eibar txartelaren kanpaina berria ipiniko du martxan EMGI-k astelehenean

Eibar Merkataritza Gune Irekiak astelehenean abiatuko du Oparitu Eibar txartelaren kanpaina berria. Eibarko 200 denda, taberna eta bestelako establezimientuetan erabili daitekeen txartela 20 eurotan erosi ahalko da, eta 30 euroko balioa duten erosketak egiteko balioko du. Guztira 300 txartel ipiniko dituzte salgai Interneten,

erosiebarren.eus helbidean, eta NAN bakoitzeko bost txartel erosi ahal izango dira gehienez. Erabiltzaileei hainbat abantaila ematen dizkien txartel hori atera zutenetik 850 bat saldu dituztela adierazi dute EMGI-ko ordezkariak, eta herriko merkatarien salmentetan izan duen eragina 50.000 euro ingurukoa dela diote.



PSE-EE alderdiak hauteskundeetarako bulegoa zabalduko du

Hauteskundeetarako bulegoa zabalduko du Eibarko PSE-EEK Toribio Etxebarria kaleko 18. zenbakian (Tiki denda egon zen tokian). Inaugurazioa gaur egingo dute, 19:30ean, eta Jon Iraola alkategaia bertan izango da. Posta bidezko botoen tramitazioa martitzenean hasiko da eta egun horretatik aurrera zabalduko dute bulegoa, 10:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era astegunetan eta 11:00etatik 14:00etara zapatuetan. Horrez gain, beti bezala Herriaren Etxean ere eskainiko dute tramitazioarako laguntza.



EH Bilduren ekitaldia domekan Errebal Plazan

Debarreneneko EH Bilduren alkategaia eta Maddalen Iriarte Gipuzkoako EH Bilduren Ahaldugaia egongo dira domekan, 12:30ean Errebal Plazan egingo duten ekitaldian.



Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta berriarekin haserre

Martxoaren 29an, aldikari ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera, DSBE Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta berria arautzen duen legea sartu da indarrean, 2008ko legea ordezkaturik. Hori dela eta, aldaketarekin oso kritiko azaldu dira Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduko ordezkariak, astelehen honetan Eibarren egin zen asteroko elkarretaratzean adierazi zuten bezala: “Lege horren 20. artikulua orain aplikatuz gero, LGS Lanbide arteko Gutxie-

neko Soldataren %100 bermatuko litzaioke pentsiodun bati, hau da, urteetan aldarrikatzen dihardugun 1.080 euroak, 14 ordainsaritan. Baina Eusko Jaurlaritzak 2019an deuseztatu zuen 20. artikulua, hori, gastu soziala murrizteko, pentsiodunen kolektiboaren kontura, besteak beste”.

Lege berria indarrean sartu eta berehala egindako adierazpenetan salatu dutenez, “pentsiodunen eskubideak zabaltzeko, genero-arrakala

murrizteko eta Pentsioen Sistema Publikoaren iraunkortasun-esparru berria ezartzeko premiazko neurriei buruzko martxoaren 16ko 2/2023 Errege Lege Dekretua ezagutu ondoren, esan behar dugu titulu handiegia dela hain eduki urria izateko. Nahiz eta ELDak zenbait hobekuntza egiten dituen kasu askotan, pentsionisten eskariek eta mobilizazioek bultzatuta, euren pentsioak eta eskubideak murrizten ari den erreforma-prozesu baten parte da, zalantzarik gabe. Erreforma horiek, 2011koa bezala, indargabetu egin behar ziren, eta ELD honetan guztiz kontrakoa egiten da, hau da, iraurarazi egiten dira”.

Urkizuko iturri pareko botijeroari erori zitzaion besoa konpondu diote

Aurreko barixakuan konpondu zuten Urkizuko iturri parean dagoen brontzezko eskultura. Orain dela aste batzuk apurtu zitzaion ezkerreko besoaren zati bat botijeroaren eskulturari eta eroritako zatia udaltzainek jaso eta gorde zuten, Alfa Arte enpresara konpontzeko eraman bitartean. Beste batzuetan

egin duten bezala, bertako langile batek konpondu zuen eskultura, dagoen tokian bertan. Horretarako, besoa berriz bere tokian ipintzeko behar zituen erremin-ta guztiak hartu eta bertan aritu zen beharrean, botijeroari jausi zitzaion zatia soldatu eta guztiz lotuta laga arte.





Marina Azpiazuk eta Roberto Moralek eraman dituzte Errigoraren otarrak

Aurreko astean zozketatu genituen Errigoraren bi otarrak eman dizkiegu aste honetan irabazleei. Saridunak Marina Azpiazu eta Roberto Moralek izan dira eta bakoitzak otar bana eraman zuen etxera eguaztenean, Nafarroa he-

goalde eta erdialdeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta, lekaleak, fruitu lehorrak eta bestelako produktuekin. Zorionak irabazle biei eta eskerrik asko zozketan parte hartzera animatu zineten guztiei.



Finlandia, Alemania, Danimarka eta Herbeheretako 33 irakasle etorri dira

Erasmus+ KA2 EMEU4 CROSSOVERS proiektua dela eta Finlandia, Alemania, Danimarka eta Herbeheretatik etorritako 33 irakasleren bisita izan zuten UNI Eibar-er-

dua ikastetxean aurreko astean. Proiektu honen bitartez nazioartean Lanbide Heziketako familia ezberdinen arteko elkarlana sustatu nahi izan da.



Bizi izandako guztiarekin pozarren itzuli da etxera Miss Grand Euskadi

Aurreko astean egin zen Miss Grand Spain lehiaketa Kanariar Uharteetan eta gure ordezkariak, Lorea Urkiak, ekitaldia nola bizi izan zuen kontatu digu. Miss Grand Euskadi eibartarrak ezin izan zuen koroa jantzi, baina inoiz ahaztu ezin izango duen esperientzia bizi izan zuen. Urkiak astebate egin zuen Kanariar Uharteetan: “Aste laburra izan zen, baina gogorra. Ez genuen atsedenerako denborarik eduki, baina asko gozatu nuen eta lagun handiak egin ditut”. Kontzentrazioa hilaren 19an hasi behar zen, baina Urkiak eta beste kide batzuek bezperan egin zuten bidaiaria, “lasaiago ibiltzeko”. Gero, eguneroan, ia ez zuten atsedetik eduki. “06:00ak inguruan esnatzen ginen, gosalduta eta entseguen hasteko. Bazkal ostean ere entseguak egiten genituen, eta baita gauean ere, 00:00-01:00ak arte”. Hala ere, zenbait bisita turistiko egiteko aukera izan zuten. Miss Grand Euskadi irabazi zuenetik ilusioz bizi izan du esperientzia guztia Urkiak eta hilabete hauetan bere alboan egon direnei eskerrak eman nahi dizkie: “Onenak zarete!”.



Ontzi arinak ondo birziklatzen ikasteko bideoa egin dute

Ontzien birziklapena areagotzeko asmoz, Debarreneko Mankomunitateak bideoa egin du, herritarrak sentsibilizatzeko eta ontziak modu egokian nola birziklatu behar diren azaltzeko. Bideoan, edukiontzi horian utzi daitezkeen hondakinak zeintzuk diren adierazteaz gain, gaikako bilketari buruzko informazio hezitzailea azaltzen da. Horrela, pausu bat aurrera eman nahi izan du: “Herritarrei edukiontzi batean zer bota daitezkeen eta zer ez soilik azaldu beharrean, hondakinaren kudeaketa nola egiten den azaltzea da asmoa”.



Untzagako jubilatutako etxeak instalazio berriak estreinatu ditu

Barixakuan inauguratu zituzten Untzagako jubilatutako etxeak espazio berriak. Ekitaldian Udaleko ordezkari politikoak egon ziren, beste hainbatekin batera, eta Jesus Mari Iparraguirre Untzaga Gizarte Zentroko presidentea eta Felix Elcoroiribe Erretiratuen eta Pentsiodunen Gipuzkoako Elkartearen presidentea egon zieten harrera.

Lanei esker, besteak beste, beheko solairuko bulegoak handitu dituzte, Untzagak adinekoen arreta modernizatzeko diseinatu duen

Bentania, leihatila bakarraren proiektuari forma fisikoa eman diote, Erabilera anitzeko bulego txiki bat ere badago, “arreta pertsonalizatuagoa emateko” eta erabilera anitzeko gela berri bat egokitu dute lehen solairuan. Erabilera anitzeko aretoetan ikus-entzunezko ekipamendua ere modernizatu egin dute eta, horrekin batera, leku bat egokitu zaien sarreran dagoen Mankomunitateko birziklatze-poltsak jasozeko makinari.



EH-ko Kontseilu Sozialistek NATOren kontrako mobilizazioak deitu dituzte

Euskal Herriko Kontseilu Sozialistek “NATOren aurka gerra eta basakeria kapitalista gelditu” goiburuko manifestazioak deitu dituzte, gaur Baionan eta bihar Gasteizen eta Iruñean, “kapitalisten gerra gaitzesteko, NATOren esku-hartze estrategia inperialista eta propaganda gerrazalea seinatzeko, eta egungo gobernuaren osatzen eta babesten duten alderdi guztien kolaborazioa agerian uzteko. Me-

taketa kapitalistaren krisiak eta horren ondoriozko atzeraldi ekonomikoak eragin dute orain arteko bitartekoak nahikoa ez izatea Mendebaldeko oligarkiaren irabaziak ziurtatzeko. Horrek gerra gure ateetaraino ekarri duen gorakada belikoa sortu du”. Mobilizazio horiei lotuta, Kontseilu Sozialistek zortzi aldarri konkreturen bidez laburbildu dute euren jarrera-hartzea.

“Hotza eta beste ezer baino askoz okerragoa da egun osoan buruari bueltak ematen pasatzea”

LUIS IGLESIAS CID • Urteak eman ditu kalean bizitzen



Aurtengo ekainean 53 urte beteko dituen Luisen bizitza benetan latza izan da, gutariko edozeinen bizitzarekin alderatuz gero. Ermuko San Lorentzo auzoan jaio eta hazi zen eta, ondoren, urteak eman ditu batetik bestera, orain dela zortzi urte Eibarrera etortzea erabaki zuen arte. Harrezkero denbora gehiena kalean bizitzen eman du, neguko aterpetxeko atea jo eta bertako langileek bizitza aldatu dioten arte.

Karmeldarren eraikinean dagoen neguko dispositibo edo aterpetxeak 2021eko abenduan zabaldu zituen ateak lehenengoz. Debabarrena eskualde osorako neguko aterpea den hori urteko hilabete batzuetan, abendutik apirilera bitartean zabaltzen dute bakarrik, asmoa etxerik gabekoek egun jakin batzuetan neguko gau hotzenetatik babesteko erabiltzea delako. Iaz ipini zen martxan aterpetxea, Soraluze, Elgoibar, Mutriku, Mendaro, Eibar eta Debako udalen arteko lankidetzaz hitzarmenaren bitartez. Eibarko Udalak lehiaketa deitu eta gero, Arrats elkarteko hezitzaileak arduratzen dira zerbitzuaren kudeaketarekin, eta bizitza erabat aldatu dioten hezitzaileen lan hori eskertu nahi du Luisek.

Zein zen zure egoera neguko dispositibora ailegatu zinenean?

Giroz aldatzeko etorri nintzen Eibarrera bueltan, orain dela zortzi bat urte, eta harrezkero kalean bizitzen egon naiz. Tarteka Galiziara, amarengana, joan izan naiz eta, halako batean, handik itzuli nintzenean, Mendaroko ospitalean amaitu nuen, neumonia baten ondorioz. Alta hartu eta, handik irten nintzenean, kalera itzuli nintzen eta, nere moduan zegoen beste batek esanda, Eibarren neguko aterpetxea zegoela jakin nuen.

Udaletxera joan nintzen, horri buruz galdetzera, eta han eman zidaten informazioarekin ailegatu nintzen aterpetxera. Ospitaletik irten eta bi gau egin nituen kalean, ondoren beste bost gau igaro nituen aterpetxean, eta gero berriz kalera. Izan ere, aterpetxean gehienez bost gau pasatu daitezke hilean. Hala ere, aterpetxean lan egiten duen jendea niri laguntzeko mugitzen hasi zen eta, horri eskerrak, berriz aterpetxean hartu ninduten, gaixorik daudenentzat dagoen gelan lo egiteko. Hilabete egin nuen horrela, aterpetxean, eta, ondoren, tutoretzapeko etxe batera joan nintzen. Eta orain han bizi naiz, beste batzuekin batera.

Noiztik ez zeunden etxe batean bizitzen?

Gogoratu ere ez dut egiten. Egia esateko, jende honek egin duen lanari esker bizitza erabat aldatu zait, zentzu guztietan gainera. Aterpetxean lan egiten dutenek eta nire medikuak niri laguntzeko egin duten guztia eskertzeko modurik ez dago, benetan. Bestela, oraindik ere hor ibiliko nintzen, noraezean, ganorazko ezer egin barik. Ikaragarrizko laguntza eman didate. Horrez gain, beste jende askok ere lagundu dit, beste maila batean. Bestela, txakurrek eta hiru urtetik beherako haurrek agurtzen naute bakarrik. Horregatik diot ezin naizela kexatu, zortea daukat inguruan tokatu zaidan jendearekin.



Ahal duen guztietan Karmen kaleko neguko dispositibora joaten da Luis, bertakoei laguntzera. SILBIA HERNANDEZ

Luzaroan zaude lanik egin barik, baina ez da horrela izan beti, ezta?

Urteak egin nituen igeltsero modura eta forjan behar-rean. Eta, bi esku hauek ditudan bitartean, ni prest nago lan egiteko, baina ez zait sortu horretarako aukerarik. Kasualitatea, lagun baten bitartez behar-rean hasi behar nintzenez, pandemia hasi zen eta ezer gabe geratu nintzen, agur lanean hasteko aukerari.

Kale gorrian bizitzen egoteak benetan gogorra izan behar du. Zuretzat zer da okerrena?

Ba, egia esaten badizut, gogorrena buruari bueltak ematen egotea da, egunero horrenbeste ordu pentsatzen pasatzea. Niretzat hori da gogorrena, zalantza barik. Bestela, nik edozein tokitan etzan eta lo egiten dut. Baina hotza eta beste ezer baino askoz okerragoa da egunero, denbora guztian, buruari bueltak ematen ibiltzea. Eskerrak bidean topatzen joan naizen jendeari, bestela... Eta, orain ere, nahiz eta etxe batean egon eta bizimodu erosoagoa izan, buruari bueltak ematen jarraitzen dut.

Bestela, kalean bizi izan zaren bitartean, zer moduz moldatu zara jendearekin? Arazorik izan duzu?

Arazorik ez, alderantziz, laguntzen ahalegindu den jende asko ezagutu dut. Baina ni ezin naiz egunero ibili bati edo besteari euro bat lagutzeko eskatzen.

Inori ez zaio gustatzen eskean ibiltzea, ez da atsegina. Niretzat ez, behintzat.

Diru-sarreraren bat daukazu?

Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzen dut, bostehun eta piku euro dira. Ez da diru gutxi. Baina etxe batean logela bat alokairuan hartu nahi dut eta 350 edo 400 euro eskatzen dizkirate. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) ematea lortuz gero, logela alokatu eta erroldan izena emateko aukera izango nuke. Une honetan, Udalaren etxe batean nago eta DEB jasotzeko eskaera egin dut, gizarte-langile baten laguntzarekin. Baina, edozein modutan ere, nik ez dut nahi inolako laguntzarik, ahal dudan bitartean lana egitea, hori da benetan nik nahi dudana. Momentuz bi esku hauek ditut, lanerako, eta gogorik ez zait falta, baina besterik ez badago...

Beraz, nahiago zenuke lanean aritzea dirulaguntzetatik bizitzea baino.

Jakina! Bat baino gehiago etorri zait kexatzen, ailegatu berri den bati dirulaguntzaren bat eman diotela esaten, horretarako eskubiderik ez dagoela eta antzerako kontuekin. Beti kexatzen eta besteekin sartzen ibiltzen diren horiei, gauza bera erantzuten diet nik: dirulaguntza hori hartu duenaren kontra ibili behar-rean, joan zaitez zu ere, berak egin duen bezala, laguntza



“Lan egiteko arazorik izan barik, egun osoan egiteko ezer ez izateak gogaitu egiten nau”

“Jendeak oso arin egiten du berba, besteak nola sentitzen diren pentsatu barik”

hori zuri emateko eskatzera. Besteak duen eskubide bera daukazu zuk ere, joan eta eskatu eta laga bakean besteak. Zer pentsatzen dute ba, norbait joango zaiela dirua eskaintzen? Gauzak ez dira horrela, ez horixe! Nik diru hori hartu beharra daukat, bestelakorik ez daukat-eta. Erratz bat ematen badidate, kale-garbitzaileak soberan leudeke! Jendeak oso arin egiten du berba, ez dakizkiten gauzen inguruan iritzia ematen dute askok... Ez gara ipintzen besteen tokian, ez dakigu nola sentitzen diren, beraien duintasunarekin ahaztu egiten gara...

Etxe horretan bizi zarenetik, nolakoa da zure bizimoduak? Zer egiten duzu egun normal batean?

Ia egun osoa etxean sartuta pasatzen dut, arratsaldeko sei eta erdiak arte. Ordu horretan irtetzen naiz etxetik, aterpetxera joateko, han afaria ematen didate, etxera eraman eta bertan jateko. Zortzi eta erdiak aldera joaten naiz afari-bila eta, ondoren, pixkatean kalean geratzen naiz, buelta bat ematen edo. Gero, hamar eta erdiak aldera etxera bueltatzen naiz, afaldu egiten dut, telebista pixkatean ikusi eta lotara joateko. Egia esateko, egun osoa etxean

sartuta zimeldu egiten naiz, egiteko ezer barik. Lan egiteko trabarik edo arazorik izan barik egun osoa horrela eman beharrak gogaitu egiten nau. Norbaitek zerbaitetan laguntzeko eskatuko balit, pozik joango nintzateke, zalantza barik. Lanen bat izanez gero gauzak oso bestelakoak lirateke, orduan etxetik irteteko arrazoi bat izango nuke, beste motibazio bat. Baina, bestela, kalean batetik bestera ibiltzeko, ganorazko ezer egin barik, horretarako hobe nago etxean. Baina ez dakit zer egin egoerari buelta emateko. Gustora arituko nintzateke edozein lan egiten, norbaitek aukera emanez gero.

Aterpetxera ere etortzen zara, laguntzera...

Niregatik egin duten guztia eta gero, egin dezakedan gutxienekoa da hori. Hemen lanean ari diren guztiek nolako lan handia egiten duten jende guztiak jakitea nahi dut, askotan horrelakoekin ahaztu egiten gara eta. Ate-joka datozen guztiei nolako harrera egiten dieten, nola ahalegintzen diren ahal duten laguntza guztia ematen, nola tratatzen duten jendea... Hemen-dik pasatu den jende guztiak pena ikaragarriarekin egiten du alde, inork ez du joan nahi.



MARIA ALONSO

Zoriontasuna hizpide

Zoriontasuna. Hitz potoloa, guztion ahotan dagoen kontzeptu hori, guztion erronka den hori...

Askori galdetzen badiegu zer izan nahi duten, zoriontsu izan nahi dutela erantzungo digute, zalantzarik gabe. Baina, zer da zoriontsu izatea? Zerk egiten gaitu benetan zoriontsu?

Hausnartzeko, maiz galdetzen diot neure buruari zerk pozten nauen, zerk egiten nauen zorioneko, eta oso argi izan ohi dut erantzuna: osasuna, maitasunez inguratua egotea (edozein maitasun mota) eta eroso bizitzeko behar adina baliabide edukitzea. Utopia hutsa askorentzat, zoritxarrez.

Aditu askorentzat, oker gabiltza zoriontasuna bilatze horretan, kanpoan aurkitzen ahalegintzen baikara, hura barnean egon arren. Beste era batera esanda: bizitza osoa ematen dugu gure poztasuna besteen ekintzetan bilatzen (hau da, denbora galtzen, egiazko bizi-algara gure barnean baitago), eta auskalo zenbat denbora pasatu ote dugun gure noranzkoa besteen eskuetan jartzen, inongo erabakirik hartu gabe, gure etorkizunean esku hartu gabe.

Ildo berekoak dira munduan barrena dauden hainbat filosofia ere: haien arabera, zenbat eta gutxiago eduki, orduan eta zoriontsuagoak izango gara. Hala ere, bat al dator hori gure gizartean gaur egun ditugun kontsumo ohiturekin? Ezetz esango nuke... eta, zoriontasuna guztion erronka nahiz jomuga izanik ere, banakako hausnarketa dagokigula iruditzen zait. Beraz, hausnar dezagun!

Eta hona hemen galdera: zu, irakurle, zerk egiten zaitu zoriontsu?

“Aditu askorentzat, oker gabiltza zoriontasuna bilatze horretan, kanpoan aurkitzen ahalegintzen baikara, hura barnean egon arren”

Lehen mailako artistak Aste Santutik bueltan

Aste Santuan nolabaiteko etenaldia egongo da herrian arlo kulturalari dagokionez, baina indartsu itzuliko da kultur-programazioa. Apirilaren 15ean, zapatua, Gipuzkoan Gazte Tour ekimenak geldialdia egingo du Eibarren eta izen handiko hiru musika talde eta artista ekarriko ditu Untzaga plazara: Meler, Andriu eta Ohian Vega.



Gipuzkoan Gazte Tour ekimenak nerabe eta gazteei kultur programazio erakargarria eskaintzea du helburu eta probintziako lau herritan egongo da (Andoain, Ordizia, Tolosa eta Eibar), bakoitzera talde ezberdinak eramanez eta lurraldeko talentuei eszenatoki gainean aritzeko aukera emanez.

Talentu horietako bat da Andriu. Andrea Garcia eibartarra dago proiektu honen atzean eta herrian hainbatetan izan dugu bere ahots gozoaz gozatzeko aukera. Orain dela bi urte eta erdi 'Hoy vas a triunfar' lana kaleratu zuen eta zenbait teledista saiotan ikusi ahal izan dugu (Bago!az eta Top Star, besteak beste).

Sare sozialetan bere abestiez gozatzeko aukera emateaz gain, beste artista batzuen abestien bertsoiak maisuki lantzen ditu. Eta ez hori bakarrik, marrazkilari bikaina ere bada. Beraz, hilaren 15ean aukera ederra dugu artista eibartarra zuzenean jotzen ikusteko.

Metrotik eszenatoki handietara

Loren, Javi eta Jonathan 'Meler' musika taldeko kideek 2018an ezagutu zuten elkar musika akademia batean. Bakarlarriak ziren, baina euren artean oso ondo konektatu eta bat egitea erabaki zuten. Madrilgo metroan jo zuten denbora batez eta 2019an 'Meler' sortzea erabaki zuten.



Andriu, Meler eta Oihan Vega arituko dira hilaren 15ean, 20:00etatik aurrera, Untzagan

Hasiera batean euren artista gustukoenen abestien bertsioak egiten zituzten, gehienak ingelesez (Londresen ibili ziren aurretik denbora batez), baina poliki-poliki abesti propioak sortzen joan ziren eta horrela etorri zen 'Waking Up' (bideoklipa Madrilgo metroan grabatu zuten). Eta, orduan, pandemia iritsi zen. Taldeak bere soinuari buelta eman eta gazteleraz grabatzen hasi ziren. Horrela iritsi zen 'Decidí' lana eta Taburete, DVICIO eta Complice taldeen telonero izaten hasi ziren.

Jatorri ezberdineko kideak izanik, bere musikak ezagurri ezberdinak ditu, pop musika gailentzen den arren. Musika alaia eta positiboa egiten saiatzen dira, 'rollo' onekoa. 'Pop energikoa' egiten dutela dio hirukoteak.

'Meler' Benidorm Fest 2023 lehiaketara aurkeztu zen 'No nos moverán' abestiarekin, baina taldeak ezin izan zuen lehen finalerdikoa gainditu.

Oihan Vega dinamizatzaile

Oihan Vega DJ-a izango da Eibarko Gipuzkoan Gazte Tourreko zeremonia-maisua eta, kontzertuen ostean, Disko Festa Gaztea! showcase-a eskainiko du. 500 emanaldi baino gehiago eskaini ondoren (Eibarren hainbatetan izan dugu), Oihan Vega erreferentziazko DJ-a da Euskal Herrian, eta ETBn eta Gaztea Irratian parte-hartzeagatik ere bada ezaguna.

Hilaren 15eko ekitaldia 20:00etan hasiko da eta Untzaga plazan egitea aurreikusten dute. Beraz, doakoa izango da.



“Ez pentsa esklabutza urruneko gauza denik, Eibarko kaleetan ere esklabuak ibili ziren”

OSCAR ALVAREZ GILA • Historialaria



Eibarko DBH 4. mailako eta Batxilergoko ikasleen artean Historiarekiko interesa piztu eta ikasketa-prozesuaren amaieran gainditu beharreko selektibitate-probarako laguntza edo pizgarria eskaintzeko asmoz, Ego Ibarra Batzordeak hitzaldi-sorta eskaini du frankismoaren eta esklabutza-irtearen inguruan martxoan zehar.

Hilaren 14an eta 21ean Oscar Alvarez Gila Historiako doktoreak bi hitzaldi eskaini zituen esklabutza-irtearen inguruan. Lehenengoan, XVI. eta XVII. mendeko esklabutza-trafikoari buruzko ikuspegi orokorra eman zuen; eta bigarrenengoan. Euskal Herriaren eta esklabutza-irtearen arteko harremanaz jardun zuen. Izan ere, berak dioen bezala, “Eibarko kaleetan esklabuak ibili ziren”.

Nolako harrera izan dute hitzaldiek?

Bi hitzaldi eskaini nituen, biak ezberdinak. Lehenengoan, hitzaldian esandakoekin ikasle batzuk harritu ziren. Adibidez, Afrikatik Amerikara 11 milioi esklabu iritsi zirela esan nuenean. Gero, kalkuluak egiten ikusi daiteke bidean zenbat hil ziren, Afrikan bertan zenbat hil ziren... Izan ere, esklabuak harrapatu egin behar zituzten eta, horretarako, gerrak egon behar ziren. Beraz, Amerikara 11 milioi heltzeko, Afrikak 70 milioi lagun galdu zituen. Bestalde, esklabuei ematen zitzaienten tratamendua nolakoa zen, salmentak nola egiten ziren, eta beste hainbat gai landu genituen.

Eta bigarren hitzaldiari dagokionez?

Bigarren hitzaldian euskaldunok esklabutza-irtearekin izan dugun harremanaz jardun genuen. Orain ez hainbeste, baina orain dela gutxi arte esan izan da XVI. mendera

arte Euskal Herria nolabaiteko irla izan zela Europan, esklabutza-irtearekin gabeko toki bat, esklabutza-irtearen aurkako legeak zeudela eta abar, baina hori ez da egia. Orain dela 20 urte inguru, Jose Antonio Azpiazu historialariak ‘Esklabuak eta trafikatzaileak’ izeneko liburua kaleratu zuen eta bertan erakutsi zuen esklabutza-irtearen parte hartu zuten hainbat euskaldun egon zirela. Eta ez hori bakarrik, Euskal Herrian ere esklabuak egon zirela.

Nortzuk ekarrita?

Hitzaldian bi adibide jarri nituen. Batetik, Martin Lopez de Isasi eibartarraren kasua dago. Merkataria zen eta bere familiak burdinaren salerosketan parte hartzen zuen. XVI. mendean, Sevillan, Amerikarako merkataritza kontuetan hasi zen. Hori da bere inguruan esaten dena eta oso izen ona dauka. “Lehen enpresa-gizon modernoa” deitzen zion aldizkari batek orain dela bi urte kaleratutako artikuluan. Ostera, Lopez de Isasi konturatu zen esklabuen salerosketan negozioa zegoela eta bertan sartu zen beste lankide eibartar eta euskaldun batzuekin batera. Gero, itsasontziak behar zituenez, Bilboko, Hondarribiko eta Debako ontzi-gizonekin elkarlanean hasi zen, eta demaseko enpresa sortu zuen esklabuak Amerikara eramateko.

Beraz, esklabuak salerosketarako beste produktu batzuk besterik ez ziren?



“Lopez de Isasi eibartarrak demaseko enpresa sortu zuen esklabuak Amerikara eramateko”

“Esklabuak objektuak ziren eta harrapatu egiten zituzten gero saltzeko”

Hori da. Esklabuak zer ziren hobeto ulertzeko, horrela azaltzen dut: esaten da gizakiak emakumezkoak eta gizonezkoak izan daitezkeela, ba esklabuak harrak eta emeak ziren. Ganadu bezala tratatzen zituzten. Dokumentu batzuetan, adibidez, agertzen da Bilbon ontzi bat prestatu behar dutela Afrikatik ez dakit zenbat “beltz” ekartzeko, horietatik “200 har eta 150 eme”. Abereak izango balira bezala. Objektuak dira, eta harrapatu egiten zituzten eta gero saldu. Ez ziren pertsonak. Kontu horrek ikasleak harritu zituen, eta ez hori bakarrik. Izan ere, Markeskua jauregia Isasi familiarena zen eta hor dago, zutik. Horregatik, esan nien bertatik pasatzen direnean gogoratzeko horren atzean zer dagoen.

Zein izan zen ikasleei jarri zenien beste adibidea?

Afrikar jaio eta umetan Amerikara eramán zuten emakumearen kasua. Han eibartar batentzat lanean hasi zen, baina eibartarrak herrimina sentitu eta etxera itzuli zen. Etorri zenean emakumea ekarri zuen eta, horrekin batera, mutiltxo mulatoa. Kontua zera da: nor izango ote zen aita? Jabea, noski. Ez pentsa horren atzean maitasun konturik zegoenik. Emakumea esklabua zen eta jabeak erabili nahi bazuen, erabiltzen zuen. XVII. mendeko esklabuen errolda baten agertzen dira, baina izen barik.

Zein estatus zuten jabeen eta esklabuen arteko harremanetik jaiotakoek?

Esklabuak izaten jarraitzen zuten. Gordin esanda, jabeentzat hori zen esklabuak ekoizteko sistemarik erakar-garriena. Legeak hori zioen: semeek edo alabek amaren kondizioak heredatzen zituztela, ez aitarenak. Beraz, ama esklabua bazen, seme-alabak ere. Gero, Eibarko hauen kasuan, jabea hil zenean, norbait errukitu zen eta askatasuna eman zieten. Pertsona garrantzitsuak ez zirenez, pista galdu zitzairen, baina pentsatzen dut ez zirela Afrikara itzuliko eta hemen biziko zirela. Beraz, ez pentsatu esklabutza urruneko gauza bat denik, hementxo kaleetan ere esklabuak ibili zirelako.

Euskal Herria esklabuentzako iragaitzako tokia zen ala hemen gelditzeko ere ekartzen zituzten?

Merkaturik handienak Sevillan eta Iberiar penintsularen hegoaldean zeuden, baina esklabu bakar batzuk ekarri zituzten. Bestetik, esklabuei buruz ari garenean, ia beti esklabu beltzen irudia dator kigu burura, baina asko eta asko Magrebkoak ziren. Hori bai, Afrika zen esklabuen harrobi nagusia. Hasieran, Mediterraneo itsasoaren inguruan gertatutako musulmanen aurkako gerretan harrapatu zituzten esklabu gehienak, baina XVI. mendean konturatu ziren Afrikar esklabu-harrobi garrantzitsua zegoela eta horra jo zuten.



Afrikako esklabuak irudikatzen dituen marrazkia. THE AFRICAN AMERICANS

XVI. eta XVII. mendeko Euskal Herriko gizarteak nola ikusten zuen esklabutzua?

Esklabutzaren kontrako legeak askotan errepikatzen dira, milaka lege zegoen. Izan ere, hemengo foral-tasuna dela-eta odol garbitasuna zaintzen zen (“leinuan ezin duzu arraza txarririk eduki”, eta abar). Kontua da legeak urtero errepikatzen zirela eta horrek esan nahi du jendeak esklabuak zituela. Noizean behin erroldak egiten ziren esklabuak kanporatzeko, baina handik denbora batera errolda berriz egin eta ikusten zen ez zituztela kanporatzen.

Barka horrela esatea, baina esklabuak balio handiko produktuak ziren?

Bai. Gainera, kalitate ezberdineko esklabuak zeuden. Mutil gazte afrikarrak ziren garestienak. Emakume gazteen prezioa txikiagoa zen, baina lanerako erabili ez arren, esklabu berriak egiteko balia garriak ziren. Ernaltzeko erabiltzen zituzten. Umeez gutxiago balio zuten, adibidez. Eta bestetik, tokiaren arabera ere aldeak zeuden. Adibidez, senegaldarrek fama ona zuten, indartsuak zirelakoan, eta mozambiketarek alper-ospea zuten. Badakigu hori guztia ez dela egia, baina horrelako ideiak sortu ziren.

Zein denbora tartetan eman zen esklabutzaren fenomeno Euskal Herrian?

Afrikako esklabuen kasuan XVI. mendean hasi zen

izugarriko merkataritza Amerikako konkistarekin lotuta, han baitzegoen merkaturik handiena eta horregatik sartu ziren negozioan hainbat euskaldun. Bestalde, XVIII. mendean boom izugarria eman zen.

Zergatik?

Guztiok dakigu Mendaron txokolate fabrika dagoela, Compañía Gipuzkoana de Caracas zer den, eta abar. Konpainia hori esklabuen salerosketan ibili zen eta horri esker hasi ginen kakaoa, txokolatea eta horrelakoak dastatzen. XVIII. mendean, Euskal Herrian kafearen eta txokolatearen kontsumoa asko hazi zen eta, errentagarria zenez, Ameriketara plantazio handiak sortu zituzten (Kuban azukrea, Venezuelara kakaoa...), eta lan-indarra Afrikatik ateratzen zuten. XIX. mendean, oster, esklabutzaren aurkako mugimenduak hedatzen dira munduan zehar, baina gure artean mende amaierara arte eutsi zitzaion esklabutzari, Kuban eta Puerto Ricon batez ere, euskaldunen parte-hartzearekin.

Esklabutzaren ondorioak nabariak dira gaur egun?

Bai, noski. Esaterako, hor dugu Ibarra familia. Nola hasi ziren dirua egiten? Arazoak zituzten eta ontzi bat antolatu zuten Santurtzin esklabua harrapatzeko. Gero, meategietan inbertsioak egin zituzten (langileak esklabu bezala tratatzen zituzten) eta hor ditugu orain, BBVA bankuarekin eta abar.



Herriko txokoak. RAY MUÑOZ

Osasun publikoaren aldeko mobilizazio jendetsua

Ehundaka eibartar elkartu ziren aurreko astean, "Osasungintza publikoa defendatu!" goiburuari jarraituta egindako manifestazioan. Mobilizazioa Eibarko Pentsionista Taldeak, Eibarko Ernaik, Matraka Neska* Gazte Taldeak eta Nalua Eibarko Feministek antolatu zuten, Osakidetzak eskaintzen duen zerbitzu publikoaren kalitatearekin kezkatuta.

Bideoa gure
YouTube kanalean
ikusgai dago



EZTEIAK eta JAUNARTZEAK



JOSU TORREALDAY

GEHIGARRIA

45. zenbakia. 2023ko UDABERRIA

Nolakoak izango dira 2023ko EZKONTZAK?

Urteak igaro ahala, modak aldatu egiten dira eta egungo ezkontzak duela hamarkada batzuetako ospakizunetatik oso urrun daude. Dena ikusi zenuela uste bazenuen, presta zaitez aurtengo ezkontzek markatuko dituzten joerekin harritzeko.

Bikoteek, gonbidatuak harritzeaz gain, ezkontza paregabe bat izatea bilatuko dute. Profesionalen arabera, benetako jaialdi bihurtuko dira, eta, hori bai, jaiak eta maitasunak protagonista nagusi izaten jarraituko dute.

Ezkontza eklektikoak. Elementu tradizionaletan modernoagoekin nahastuko dira. Ez da harritzekoa izango landa-zapore handiko zeremonia batera joatea, eta, ondoren, jai abangoardistago batez gozatzea, neoiekin eta kolore biziko karteekin. Musika, neoiak, su artifizialak, ke-kanoiak, eguzkitako betaurrekoak edo eskumuturrekoak ikusiko ditugu.

Protokolo gutxiagoko banketea. Bankete malguagoak eta dinamikoagoak izango dira, lehenik eta behin, eserlekuak izendatzea ezabatuz, eta, bigarrenik, bazkaltzera esertzeko unea ez ezik, bazkarian mugikortasuna eta animazioa ekarriko duten jarduerak tartekatuz.



JOSU TORREALDAY

ROSANA
ILEAPAINDEGIA

943 120624

URKIZU PASALEKUA, 7 - BEHEA

San Andres
Gozategia

Bidebarrieta, 28 943 20 79 73

Ezkontzetarako tartak eta opariak prestatzen ditugu

fasprint
inprimategia

EZKONTZA GONBIDAPENAK
gonbidapen pertsonalizatuak argazkiarekin

SERIGRAFIA

943 20 16 13 688 68 73 85 Ego-Gain, 11 ac
fasprintei@yahoo.es www.fasprinteibar.com

"TIRO PITXOI JATETXEA"

Arraten

- Eguneko menua
- Menu pertsonalizatuak
- Menu bereziak
- Karta...

Ezkontzak
- Ospakizunak...

TERRAZA EDERRA BISTA PAREGABEEKIN 943 20 88 59



DAINA

Biziz betetako argiztapena. Kolore kirrinkari eta ikusgarriko argiek orain arte ikusi dugun kutsu erromantiko eta magikoa hausten dute. Tamaina handiko lanparek, neoiek edo diskotekako boleku kutsu glamurosoa emango diete argiztapenari eta dekorazioari.

Lore-konposizioak ikusgarriak eta bikainak izango dira, lore mota zabal, luze eta askotarikoekin. Lore-sorta monokromatikoak nagusituko dira, gehienbat zuriak. Gainera, lore-sortak ez dira nesken kontua izango bakarrik.

EZKONTZA-MODA

Emaztegaiaren jantzietan lore-estapanpatek protagonismoa partekatuko dute klasiko zuriarekin. Loreak farfailetan, brodatuetan eta 3D formatan ere egongo dira, bai emaztegaiaren *looketan*, bai festa-jantzietan.

Sorbaldakoek, lumek eta flekoek ere ukitu sexy eta bereizgarria izango dute. Bigarren soineko bat ere ezinbestekoa izango da, gonbidatuak harritzeaz gain, festarako erosotasuna ekarriko duena. Gainera, kapak osagarri ezin hobeak izango dira.

Egunerokoan ilea bilduta eramaten ohituta ba-zaude, egin ezazu hori ere ezkontzan! Orrazkera landuagoa eta desberdinagoa, baina eroso sentitzeko modukoa. Abantailatuko bat da, ondo eginda badago, luzaroan eutsiko diola eta ileak gogaitzea edo denbora guztian ukitzea saihestuko duzula. Emaztegaiaren bilketa-mota bat baino gehiago dago, altueraren arabera, klasikoenetatik hasi eta informalenetara.

Gerritek
INFORMATIKA

info@gerritek.net www.gerritek.net
Txantxa-Zelai, 4-6. Tel. 943 03 38 92

Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta

Neurrira egindako software-aren garapena

YOKASTA Ibarkurutze, 7
Tel. 643 309 835

manikura-aretoa

MANIKURA
5 €tik hasita

PEDIKURA
10 €tik hasita

nare azarikalak
nare espresibidura

KERALA JORGE GARZA

www.estetikakerala.es
www.cosmeticadelbienestar.es

Urkizu, 11 solairua 943 53 05 25

Makillajea Etxean Bertan

Estetika Tratamenduak, Manikura, Depilazioak,
Emaztegaiarentako BONO BEREZIA...

Errebal, 16

umea

943 203 164



JOSU TORREALDAY

Eta senargaiantzat? Zuria (*total white*) edo zuri-beltza izango dira gehien ikusiko diren aukera kromatikoak, eta jantziek ebaki zabalagoa izango dute. Ausartenek gerrikoa aukeratuko dute ezinbesteko osagarri gisa.

Gonbidatuei dagokienez, sorbaldakoak, flekoak, drapeatuak, transparentziak, kortseak eta ebaki asimetrikoak izango dira protagonista, eta *block* osoa nagusituko da, fuksia eta arrosa nabarmenduz.

Gizonezko gonbidatuentzat diseinu lasaienak, XXL txoritxoak eta brusa eta alkandora distiratsua eta gardenak izango dira denboraldiko izarrak.

EZTEI-BIDAIA

«Egun handia» baino zenbait hilabete lehenago prest utzi beharreko gai nagusien artean, ezkongaiak gehien desiratzen dutenetako bat dago: eztei-bidaia-rako lekua aukeratzea. Izan ere, hainbeste hilabe-

teko estresari eta prestakuntzari amaiera emateko, ez dago ezer hoberik beti amestu duzuen helmuga aukeratzea eta senar-emazte gisa bisitatzea baino.

Herrialde bakoitza mundu bat da eskaintzen eta berezi egiten duten gauza zoragarriek esker. Horrela, komeni da aukeratu dugun lekua sakon aztertzea. Erreferentzia exotiko nagusiak diren Afrika, Hego Amerika edo Asia bisitatzeko badituzu, informazio zaituzte elikadurari eta klimatologiari buruz, agian kontuan hartu beharreko alderdi nagusietako bi, txertoen kontua ahaztu barik.

Jordania, Arabiar Emirerriak, Saudi Arabia edo Kuwait bezalako herrialdeak beroak dira urte osoan. Kasu horretan, negua aukera hobea da. Beste batzuek, Indiak eta Nepalek, esaterako, montzoi-euriak izaten dituzte, eta hobe da azaroa eta martxo bitartean bisitatzea.

Herrialde horietako batzuetan guretzako ezohiko den gastronomia edo menu baten parte gisa

ROCA
CALBETON, 16 -EIBAR- TEL. 943 20 80 06
Ezkontza eta egun berezietan ZUREKIN!!



BELAUSTEGI

— BASERRIA —

ZURE ESKONTZA
ZURE NEURRIRA!



SAN MIGEL GAINA, 44 . 20870 ELGOIBAR



943 74 31 02

WWW.BELAUSTEGI.COM



inoiz imajinatuko ez genukeen elikagaiak sartzen dituzte. Horregatik, aldez aurreko ezagutza bat izatez komeni da, ezustekoak saihesteko.

Halaber, ezinbestekoa da inguruko garraio-bideei, hizkuntzei eta jendearen soziabilitateari buruz informatzea, heziketa ez baita berdina leku guztietan. Lehenik eta behin, errespetatu bisitatzen duzuen lekua, saiatu bere ohituretara egokitzen, gozatu eta "ekarri" lur horren zati bat.

Bikote ugari batzen dute eztei-bidaia-aren baime-laneko oporraldiarekin, eta hilabete bat pilatzen dute munduan zehar ibiltzeko, Zeelanda Berria, Txile edo Vietnam bezalako helmuga urrunekin. Denbora horrekin eta aurrekontu zabal batekin, irudimenak bakarrik markatzen du muga. Baina eztei-bidaia-rako 10 edo 15 egun baldin baditugu, bi edo hiru helmuga hurbilagorekin nahikoa izango litzateke, Amerika eta Asiako hego-ekialdeko maitaleek egin ohi dutena bezala.

Zer nahi duzuen jakiten duzuenean, zuen aurrekontura egokitzen den leku bat aukeratzeko ueña iritsiko da. Pakete askok hiriak edo herrialdeak konbinatzen dituzte, eta agian ondo etorriko zaizkizue zuen zenbatekoa oso handia ez bada. Horrela, bikote askok New York eta Riviera Maya bezalako lekuak bisita ditzakete, behar asko betetzen dituzten helmugak dira-eta.

Baina dirua ez bada arazo zuentzat, bidaia-agenzien laguntzarekin, nahierara espedizio bat antola dezakezue, mugarik gabe, ezohiko aukera eta helmugekin.

ahaztezina izan dadin. Lehen Jaunartzearen batez besteko kostua 2.067 euro ingurukoa da 20 pertsonarentzat. Kopuru horiek % 37,8 igo dira Covid-aren aurreko urteetatik.

Familiak gehien eskatzen dituzten lekuak lorategia duten jatetxeak edo aire zabaleko guneak izan ohi dira, parke moduko haurrentzako guneak dituztenak. Kontuan izan garrantzitsua dela aukeratzeko duzun espazioa aire zabalekoa ez ezik itxitakoa ere izatea, denok dakigunez, maiatzean eguraldi ona, baina txarra ere egin dezake-eta.

SOINEKOAK

Jaunartzeko soinekoen joerak oso aldakorak dira neskentzat, eta batzuek jantzi klasikoa edo diseinu modernoagoa eta sinpleagoa aukeratzen dute. Zalantzarik gabe, soinekoaren prezioa aldatu egiten da oihalen kalitatearen arabera, horretarako egindako diseinu eskusiboak badira edo dendan erositako modeloak badira. Gainera, nesken kasuan, ile-apainketa da jokoan sartzen den beste gastuetako bat. Lehen Jaunartzea bere lehen ekitaldi garrantzitsua da eta seguru asko ilusio handia egingo dio orrazkera berezi bat eramateak. Oraindik ere badira betiko marinel edo almirante jantziarekin jaunartzea egiten duten mutilak, edo aukera berriagoen alde egiten dutenak edo gero kalean erabili ahal izango dituen praktika eta jakak aukeratzen dituztenak.



Argazkilariak oso paper garrantzitsua jokatzen du egun berezi honetan, mundu guztiari gustatzen baitzaio gertaera horren oroitzapen ahaztezina izatea. Kontrataterakoan onena da beste jaunartze baterako kontratatu duten lagunen edo senideen erreferentziak eskatzea eta aholkatzea.

Gurasoek zein haurrek oso gustuko dute egun garrantzitsu horren oroitzapena izatea, eta gonbidapenak eta oroigarriak ezin hobeak dira horretarako. Azken urteotan oso modan jarri da umearen ilustrazio batekin pertsonalizatzea edo gustuko gai bat aukeratzea.

Khôl Estilistak Estaziño, 4 943 254776

Ezagutu edertasun kontzientearen kultura berri bat aktibo botaniko % 100 naturalekin

Secretos del agua

Izadi

LORA DENDA

San Juan, 1
Tel. 943 20 33 29

Entkarguak etxera

apirilak 2 (EIBAR-EIBAR)



GARAILEA



MENDIA



23 URTEIN AZPIKO ONENA



SAIATUENAREN SARIA



TARTEKO HELMUGAK



SPRINT BEREZIAK



LEHEN EUSKALDUNA



DEBABARRENAKO ONENA



TALDEKAKO SAILKAPENA



Udaberri Proba (garailea)

V. EIBARKO HIRIA SARI
NAGUSIA -EMAKUMEZKOAK-
(garailea)

CCE Saria (garailea)



San Juan Saria (garailea)

LAGUNTZAILEAK

- Eibarko Udala
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- SD Eibar Fundazioa
- Laurel & Hardy Pub
- Izadi Loradenda
- Oria Sport Wear, S.L.
- Beltran Igoalluak
- Inpratex
- Ikolan Sport
- Goritz Hornikuntzak, S.A.
- Pneumax
- Industrias Mail
- Soraluze S. Coop.

- Ruibal
- Nelnor
- Manufacturas GES
- Hotel Castillo
- Vitaldent
- Gorla Auto Group
- TAES
- Urkotronik
- Autobuses Dario
- Alkideba
- Ongi Etorri Taberna
- Gastro Gilda
- Eusko Label

- Ixua Hotela
- MTE
- Berkoa
- Oberena Harategia
- Arkupe Gastro Pub
- Larragest Inmobiliaria
- Guridi taberna
- S.C.R.G. Bide-Alde
- S.C.R.G. Kamarroak
- Kalaka Taberna
- Buenos Aires Taberna
- As Burgas Casa de Galicia
- Casa Cantabria

Eibar Txirrindulari Taldea, formakuntzaren errepidetik

Eibarko Klub Deportiboko txirrindularitza batzordeak urte asko daramatza txirrindulari gazteenei bidea egiteko aukera eskaintzen. Hainbat urtetan emakumezkoen txirrindularitzari ere hauspoa eman zioten bertatik, emakumezkoen kirolaren alde aitzindariak izateko. Gaur egun, guztiz egin gabeko txirrindularien formakuntzan saiatzen dira batez ere. Galder Lasuen da erantzukizun hori bere gain hartu duena.

Galder Lasuenek hainbat denboraldi egin ditu da-goeneko gure herriko txirrindulari taldea zuzentzen: “Sei bat izango dira Juanjo Sebastianen lekukoa hartu nuela”. Eibar Txirrindulari Taldea berez Klub Deportiboarena da eta gaur egun 17 txirrindulari ditu, 23 urtez azpiko eta elite mailakoak. Euretako lau eibartarrak dira: Iker Goikoetxea, Ander Gutierrez, Jokin Amorrosta eta Mikel Perez de Obanos. Bestelako guztiak Gipuzkoa osotik etorritakoak dira: “Ermuko bat kenduta. Irun, Mendaro, Beizama, Lasarte... probintzia osoa hartzen dugu”. Errepideetako lasterketak ardatz badituzte ere, badira pistan eta ziklo-krosean dihardutenak ere: “Telmo Senperena, Astigarragakoa bera, orain izan da Mallorcako Espainiako pista txapelketetan parte hartzen. Bartzelonan dihardu ikasten. Eta hor dugu baita Unax Urretabizkaia ere. Ziklo-krosean, bestalde, Ander Altunak eta Aimar Aiestaranek egin dute denboraldia”.

Domekan jokatuiko den Valenciaga Memorialerako zelako taldea prestatu duten galdetuta, Lasuenek



Galder Lasuen Gabon Zahar eguneko Eibarko Kirol Sariak ekitaldian izan zen, bere kirol modalitateko saria emateko.

>>> Jokin Amorrosta, Iker Goikoetxea, Ander Gutierrez eta Mikel Perez de Obanos eibartarrak daude taldean

dio “taldea lasterketan bere burua erakustera” irtengo dela, “ahaztu barik lehen hogeiren artean bateren bat sartzea ere helburutzat dugula”. Aritz Sein irundarra izango da taldeburu eta berarekin osatuko dute taldea Beñat Fernandez mendarorak, Aitor Garmendia itsasondorak, Aimar Aiestaran zaldibitarak eta Mikel Goikoetxea andoaindarrak, Perez de Obanos eta Amorrosta eibartarrekin batera.

Denboraldian zehar 40tik 50era arteko kopuruan mugitzen dira, parte harzten duten lasterketei begira. “Lehendakari eta Euskaldun Sarietan sartzen diren guztietan hartzen dugu parte eta, horiez gain, Espainiako Koparako baliagarriak diren beste lautan ere izaten gara. Oraingokoan hirurekin konformatu behar izango gara, Aiztondoko bertan behera geratu zelako. Valenciagaren ondoren, apirilaren 23an Torre donjimenokoa izango dugu zain eta maiatzaren 1ean, bestalde, Legazpikoa”. Itzuliak ere ez dituzte baztertzen eta, maiatzean jokatuiko duten Bidasoakoarekin batera, Nafarroakoan eta Zamorakoan ere hartzen dute parte: “Azken astebu-



23 urtetik azpiko eta elite mailtako 17 txirrindularik osatzen dute gaur egun Eibarko Klub Deportivoak kaleratzen duen taldea.

ruan bertan Zamora aldean izan ginen eta Senperenak, esaterako, hamargarren amaitu zuen bitan". Denboraldia, bestalde, otsaileko azken astean abiatzen dute, "Zumaiako probarekin, eta iraileko azken astean amaitzen, Oñatikoarekin".

Ikasleak eta kirolariak aldi berean Gogokoen zein proba duten, edo zein lehenesten duten galdetuta, Galderrek argi du: "Lehenengoa, guretzat, etxekoa da: Valenciaga, hain zuzen. Hala ere, Bidasoako Itzulia ere begipuntu dugu, Seinek hor gauza politak egin ditzake. Senperena bera iaz ondo ibili zen". Baina, emaitzak ahaztu gabe ere, "gazteak formatzeari" ematen dio garrantzi berezia Eibar Txirrindulari Taldeko zuzendariak: "Taldean ditugun guztiak ikasten dihardute, hori delako lehenengoa. Emaitzak datozela... hobe; beste jauzi

>>> "Ikusteko kirol polita izateaz gain, publizitaterako hesia eskaintzen duen kirola da txirrindularitza, mugikorra gainera"

bat eman eta podiumera igotzeko aukera dagoela... are hobeto!".

Lasterketetako moto-loturetan dihardutenen eta aseguru-etxeen artean izandako arazoak denboraldi hasiera honetan bere eragina izan badu ere, euren kasuan ez dela hainbesterako izan dio Galder Lasuenek: "Batez ere kadete eta jubencil mailetakoei eragin dielako

eta, horrez gain, gure probak Bizkaian eta Nafarroan izan ditugulako. Aiztondokoa geratu zitzaigun jokatu barik".

Azken urteotan txirrindularitzak izan duen bilakaeraren inguruan, Galderrek "gazteek ekarritako txispa berezia" nabarmendu du. "Sasoiki bateko larregizko kontrolarekin apurtzea lortu dute, bakoitzak duen berezko hori erakutsiz. Ez dute beldurrik erasoia jatzeko eta lasterketa biziagoak eskaini dizkigute". Baina guztia ez da urre kolorekoa, argi dago, gorpilen mundu horretan: "Txirrindularitzan dirua sartzea oso zaila ari da suertatzen. Enpresei kostatzen zaie horretan inbertitzea". Badago, baina, kirol hori baino erakargarriagorik publizitatea egiteko? "Berez kirol polita izateaz gain, hesi publizitarioa da gurea. Mugikorra, gainera, errepide guztietan ikusi daitekeena".



EIBARKO BIZIKLETA

TXIRRINDULARITZARAKO GUZTIA
(salmenta eta konponketa)
bizikletak / aldagailuak / osagaiak / erropa / oinetakoak

ANDONI RETENAGA
zure konfidantzazko mekanikaria

10.00-13.00 / 16.30-20.00
ZAPATUETAN: 10.00-13.00

Karmen, 4 andoni@ciclalia.es 943 530 212

ANGEL LOPEZ • Eibarko Txirrindulari Elkarteko presidentea

“Hemendik aurrera Valenciaga Itzuliaren aurretik jokatu da”

Sortutako arazoei aurre egiten ohituta daude gure herriko probetako antolatzaileak. Aurten zailtasunak handitu badira ere, konponbidean sartuta, afizionatuen mailako estatuko probarik entzutetsuena izango da jokoan etzi. Zaletuek gozatzeko beste aukera bat dute eskura.



Zelako aldaketak izango ditu aurrerago Valenciagak?

52. edizioak bi aldaketa garrantzitsu ekarriko ditu iazkoarekin konparatuta. Batetik, Elgeta, Elorrio eta Abadiñotik igarotzen den ibilbide zaharra berreskuratuko dugu eta, bestetik, baita Toribio Etxebarriako helmuga ere.

Zenbat talde eta txirrindulari izango dira parte hartzen?

28 taldek hartuko dute parte, bakoitza zazpi txirrindulariz osatuta. 196 txirrindulari izango dira guztira, estatuko afizionatuen mailako txirrindularirik onenekin.

Zelako zailtasunak izan dituzue proba antolatzeko? Lasterketa arriskuan izan da?

Alde batetik, Ertzantzaren arazoa

izan da; hau da, trafiko sailekoek gero eta jende gutxiago dutela lasterketen segurtasuna bermatzeko. Horrek moto-loturen presentzia gero eta garrantzitsuagoa izatea eragiten du. Aurrekoarekin lotuta, azken kolektibo horretakoek euren motoak eta uniformeak babesa izatea eskatzen zuten aseguruaren barne; baina aseguruetako konpainiek beste alde batera begiratu dute. Hortik etorri zen kolektibo horrek planto egitea eta, baita, Udaberri lasterketa jokatu behar zen egunean Untzagan izandako protesta ere.

Badago lotu beharreko bestelako punturik?

Moto-loturen arazoetatik aparte, hemendik aurrera Valenciaga Oroitzarrea Itzulia baino astebete lehenago jokatu beharko da, Ertzantza gorpuztekoen atsedena errespetatzeko.

Zergatik eragin du Gipuzkoan bakarrik eta ez beste lurraldeetan?

Euskal Herriko lasterketa gehien antolatzen dituen lurraldea izanik, edozein ezbehar gertatzeko beste probintzietan baino arrisku handiagoa dagoelako.

Arazoa konponduta dago? Edo behin-behineko soluzioa da?

Momentuz, behin-behineko konponketa jarri da mahai gainean, denboraldia hasteko. Baina arazoak ez

du konponbide errazik. Bere denbora beharko du eta soluzioa goitik etorri beharko da.

Bertan behera geratu zen Udaberri proba berreskuratzeo asmorik bai?

Apirilaren 30ean egiteko aukera eskaini baziguten ere, baimen hori ukatu egin ziguten Gipuzkoan beste lasterketa bat ba omen zegoela esanez. Beraz, gaurtik ikusita, aurten ez dela jokatu esan genezake.

Egutegiko bestelako probak lotuta dituzue guztiz?

Momentuz, apirilean gogor egin beharko dugu lan. Valenciagaren ondoren, hilaren 16an kadeteen proba daukagu. Itzulia tartean izanda, oso lanpetuta ibiliko gara, bai.

Emakumezkoen lasterketaren bosgarren edizioa izango da hurrengoa.

Eibarko Txirrindulari Elkartetik funtsezkoa iruditzen zaigu emakumezkoen txirrindularitza bultzatzea. Harrotasunez diogu emakumezkoen proba dela klub honek antolatzen duen karrera profesional bakarra. Gainera, nazioartekoa da, UCI 1.1 mailakoa.

Zelan ikusten duzu Tourra gurean hastea? Zailtasuna piztuko du?

Tourrari buruz elkartetik ez dugu ezer esateko, gure herria zeharo ahaztu dute-eta.

Boluntarioen figura ere gutxitzen diharduen neurrian, zuen antolaketan lanetan igarri duzue halakorik?

Gero eta zailagoa bihurtu zaigu bolondres jardungo dutenak aurkitzea. Sasoi batean zaleengandik jasotzen genuen laguntza izugarria zen; gaur egun amesgaiztoa bihurtu bada ere, nola edo hala badihardugu lasterketak aurrera ateratzen.

Zer eskatuko (zer eskertuko) zenieke Eibarko txirrindulari-zaleei?

Datorren apirilaren 2tik aurrera txirrindularitza gozatzeko aukera izango dugulakoan, ziur nago bide bazter guztiak jendez gainezka egongo direla.

Gurpilen jaiia izango dugu apirilaren 2an eta 8an

EIBAR ERDIGUNE

Gure herriak txirindularitzarekiko betidaniko zaletasunari erantzungo dio beste behin hurrengo egunetan, batez ere etzi eta hurrengo zapatuan gurean hasi eta amaituko diren lasterketekin. Etzikoa eguerdi aldean jokatu da, bestea arratsaldez. Hona hemen ordutegiak.

Apirilak 2 (Valenciaga)

09:00 Irteera neutralizatua (Untzagatik Azitainera)

12:10 130. km. Unibertsitatetik sartuta, tarteko helmuga jokatu eta Amañatik igoko dute

12:25 135. km. Ixuako gaina

13:10 161. km. Azitaindik sartuta

13:10 165. km. Helmuga Toribio Etxebarria kalean

Apirilak 8 (Itzuliko azken etapa)

13:50 Irteera neutralizatua (Untzagatik Azitainera)

15:35 65. km. Azitaindik sartuta, Orbetik Arratera igoko dute

15:45 70. km. Krabelingo gaina



16:30 104. km. Unibertsitatetik sartuta, tarteko helmuga jokatu eta Ixuara igoko dute

16:40 111. km. Ixuako gaina

17:15 134. km. Azitaindik sartuta

17:20 138. km. Helmuga Toribio Etxebarria kalean

6. etapako mendateak

Itzuliaren azken etapa, Eibarren hasi eta Eibarren amaituko denak, zazpi mendate izango ditu: 1. mailako hiru, 2. mailako bat eta 3. mailako beste hiru. Honakoak dira kilometro gutxitan txirindulariek aurrez aurre izango dituzten mendateak:

– 3. mailako *Elkorreta*

2,6 kilometro ditu, 171 metroko desnibela rekin; bataz beste %6,7ko portzentajeari egin beharko diote aurre eta, gehienez jota, %13ko aldapekin aurkituko dira.

– 1. mailako *Azurki*

5,1 kilometro ditu, 376 metroko desnibelarekin; bataz beste %7,4ko portzentajeari egin beharko diote aurre eta, gehienez jota, %16ko aldapekin aurkituko dira.

– 2. mailako *Gorla*

9,6 kilometro ditu, 547 metroko desnibelarekin; bataz beste %5,7ko portzentajeari egin beharko diote aurre eta, gehienez jota, %11ko aldapekin aurkituko dira.

– 1. mailako *Krabelin*

5 kilometro ditu, 477 metroko desnibelarekin; bataz beste %9,6ko portzentajeari egin beharko diote aurre eta, gehienez jota, %17ko aldapekin aurkituko dira.

– 3. mailako *Trabakua*

3,3 kilometro ditu, 235 metroko desnibelarekin; bataz beste %7,1eko portzentajeari egin beharko diote aurre eta, gehienez jota, %10eko aldapekin aurkituko dira.

– 1. mailako *Ixua*

4,1 kilometro ditu, 278 metroko desnibelarekin; bataz beste %9,2ko portzentajeari egin beharko diote aurre eta, gehienez jota, %13ko aldapekin aurkituko dira.

– 3. mailako *Urkaregi*

5 kilometro ditu, 240 metroko desnibelarekin; bataz beste %4,8ko portzentajeari egin beharko diote aurre eta, gehienez jota, %8ko aldapekin aurkituko dira.

Izerdi nahiko izango da artean!



Eibarrek hartuko du errugbiko Sevens Erregin Kopa maiatzean

Maiatzaren 6an hasi eta ekainaren 11ra arte iraungo duen modalitate olinpikoko emakumezkoen txapelketa nazional horretako jardunaldi bat hartuko du gure herriak, Unben jokatu beharrekoa. Sevens Erregin Kopa errugbiarekin lotutako ekitaldirik garrantzitsuenetarikoa da, Espainian Sevens jokatzeko emakumezkoen errugbi-talderik onenak bilduko dituena; hortik aterako da GPS 7s 2023ko Erregin Kopako txapelduna. Ez da lehen aldia Eibar Rugby Taldeak horrelakoak antolatzen dituena eta, aurreko emaitza onen ordainetan, eman dio berriro ere konpromiso



hori Espainiako Errugbi Federazioaren Batzordeak.

Bestalde, zapatuan Senperen jokatu zen Txapelketaren XI. edizioan gure herriko taldearen ordezkari zabalabala izan zen Gipuzkoako azpi 15eko selekzioarekin parte hartzen.

Azkenean hirugarren postua lortu zutenen artean, Ane Couto eta Martina Gutierrez de Lemos jokalariek batera, Aleu Cidek eta Yamila Oterok staff teknikoa osatu zuten. Guztiek ere lan bikaina eginez esperientzia berri horretan.

Ibarra-Iraolagoitia bikotea txapelaren bila gaur Astelenan



Gaur 19:00etan hasita Astelenan izango den jaialdian bi final izango dira jokoan, eurretako bigarrenen gure herriko pilotarien parte-hartzearekin. Jubenil mailako Gipuzkoa Mendebaldeko Udaberri txapelketako finalean Ibarra-Iraolagoitia Deporrek bikotea Azpeitiko Larrañaga-Odrizolarekin lehiatuko da txapelaren bila. Eibarko pilotariek txapelketa bikaina egin dute, aurreko barixakuan Astelenako harmailak beteta zirela jaialdi zirraragarrian erakutsi zuten bezala finalerako txartela eskaini zien partiduan. Jaialdia hasteko,

errendimenduko infantil mailako Gipuzkoako Binakako Txapelketaren finala jokatu da Getariako eta Zestoako bikoteen artean.

Bestalde, Eibarko II. Paleta Goma Txapelketak aurrera jarraitzen du eta lehen faseko azken jardunaldien bezperatan gaude. Azken asteko emaitzak honakoak izan ziren: Ibarbia/Urain 25, Amas-Gisa 5; Mendibe/Conde 25, Soria/Lombraña 24; Juanma/Zeni 25, Diez anaiak 11; Apraiz/Korta 25, Urkia/Bartolo 11; Tota/Yurgui 25, Azeri/Ubilla 18; eta Iker/Tito 25, Argoitz/Trontxo 22.

Urbateko lehen taldeak penaltietan galdu zuen Donostirekin

Espainiako 2. Mailara igotzeko faserako sailkatuta, Urbat Urkotronik waterpoloko talde nagusiak penaltietan galdu zuen azken jardunaldian Waterpolo Donostirekin. Eibartarrek hasiera ona eman

zioten partiduari, 1-5 aurreratuz, baina hauspoa galtzen joan ziren eta amaieran markagailuak zortzinako berdinketa erakutsi zuen. Ondorengo penaltietan donostiarrek gehiago izan ziren, 12-10 ira-

bazteko. Senior mailako emakumezkoen taldeak ere ez zuen egun onena izan eta Leioa B-rekin 13-7 galdu zuen. Gizonezkoen B taldeak, ordea, beste garaipen bat eskuratu zuen, Santoña 13-6 garaituz.

Eibar FT-ko lehen taldeak euren sailkapenetako lehen tokian daude

Bai SmartBank Ligan jokatzeko duen Gaizka Garitanoren taldea, baita Federazioko 1. Mailan jokatzeko duen Yeray Martinena ere, biak ere igoera zuzena emango lieketen postuetan daude gaur egun. Gizonezkoen taldearen kasuan berderatzi jardunaldi falta direnean liga amaitzeko eta emakumezkoen jokatzeko sei besterik falta ez zaizkienean. Azken jardunaldian gizonezkoen taldeak berdinketarekin konformatu behar izan zuen Andorraren kontra Ipuruan jokatutako neurketan; emakumezkoenak, bestalde, 87. minutuan sartutako gol bati esker irabazi zuen azken sailkatuaren zelaian jokatutako norgehiagoka. Ikusten denez,

sailkapenetako goi-goian egonda ere, ez bata ez besteak ez dute nagusitasun handirik erakutsi, baina gauza bera ari zaie gertatzen aurkari zuzenak izan daitezkeenei ere.

Asteburu honetan emakumezkoen taldeak sailkapenaren erdialdean dagoen Albacete hartuko du Unben, domekan 11:30ean, eta gizonezkoenak Oviedon jokatuko du bezperan, gauez, 21:00etan hasiko den partiduan. Puntu garrantzitsuak izango dituzte jokoan biek ala biek, batez ere igotzeko azken helburuari begira. Une honetan Federazioko 1. Mailan Bartzelona B dago lider (ezin du igo) eta Eibar bigarren da, 43 punturekin. Deportibok eta Osasunak 42na dituzte,



Noelia Garcia atezainak, min hartuta, denboraldiari agur esan dio.

Granadak 41, eta DUX Logroñok eta Cacerenok 40. SmartBank Ligari dagokionez, Eibar gorenean dago 63 punturekin, Granadak jarraitzen dio 61ekin, Las Palmasek eta Levantek 59 dituzte eta Alavesek 57. Promozionatzeko azkena Albacete da, 52rekin.




AURREMATRIKULA

ALDATZE BATXILERGOA

Martxoaren 27tik
Apirilaren 21era

Nahi bezain urrun
iristeko aukera



American High
School Diploma
www.academica.school





Probidentzia Andra Mari - Aldatze ikastetxea
Aldatze kalea, 5 - 30600 Eibar
943 70 11 50 - aldatze@aldatze.org - www.aldatze.eus

Eibar Saskibaloiko taldeak liga amaitzeko azkenetan dira

Gizonezkoen Lurrealdeko 2. Mailan jokatzeko duen Artesanos Juantxo Eibar Saskibaloia hirugarren sailkapenean asteburu honetan Easo Basket-en aurka jokatu beharreko ligako azken partiduen aurretik. Partidua zapatuan jokatu dute, 20:00etan hasita, eta aurreko jardunaldian eibartarrek 70-55 irabazi zioten Ipuruan Hernani KE-ri. Lurrealdeko 3. Mailako B multzoan jokatzeko duen Eibar Saskibaloiko beste bi taldeak euren liga amaitzeko bi jardunaldien faltan daude. Une honetan Bar Irimo Berria Eibar Saskibaloia bosgarren sailkapenean eta Eibar Saskibaloia Czortzigarren



postuan dago. Azken hori Astigarragako Mundarro B-ri 53-38 gailendu zitzaion aurreko jardunaldian, Bar Irimo Berriak Arri BKL Gaztelurrekin 81-68 galtzen zuen bitartean. Asteburu honetan Bar Irimo Berriak

etxean jokatu du, Ipurua kiroldegian, ZurrutSK-ren aurka, domekan 11:30ean hasiko den norgehiagokan. Eta Eibar Saskibaloia C-k Debako Zalburdi Debasket-en kantxan jokatu du, gaur 18:30etik aurrera.

JAZ Triatloioek Arbizuko eta Usansoloko duatloietan izan ziren

Gure herriko triatloi taldeko ordezkariak lan bikaina egin zuten, gainera, parte hartu zuten bi duatloi horietan. Aurreko zapatuan jokatu zen Arbizuko Alex Higuera 30. postuan amaitu zuen. Bertan osatu beharreko distantzia honakoa izan zen: 8 kilometro antxintxiketan, 32 bizikleta gainean eta, amaitzeko, beste 4 antxintxika. Domekan, bestalde, Roberto Gartzia eta Cristi-



na Ruizek bikote gisa hartu zuten parte (*argazkian*) Usansoloko binakako lehen duatloian eta, oso ondo moldatzeaz gainera, 17. postuan helmugaratu ziren. Asteburu honetan taldeko hainbat duatleta Zuiako duatloi ospetsuan izango dira honako distantzia osatzeko asmotan: 15 kilometro korrika, 70 bizikletan eta azken 7ak korrika berriro.

Kalamuako hiru ordezkari alebinetako Gipuzkoako txapelketan



Kalamuako judoek hainbat txapelketatan dihardute dagoeneko. Horrela, Errenteriako Regina Otaola frontoian jokatu ailebin handi mailako lehenengo fasean Kalamuak hiru ordezkari aurkeztu zituen. Andoni Hurra izan zen maila handien erakutsi zuena, izandako hiru borrokak irabazita. Aner Gonzalezek bere lehenengo irabazi zuen eta, bigarrena galdu ondo-

ren eta jasotako kolpe gogorraren ondorioetatik errekuaratu gabe, gauza izan zen hirugarren borroka irabazteko. Julen Martinek, bestalde, lehen borroka galdu bazuen ere, gai izan zen bigarrena irabazteko; hala ere, hirugarrenean amore eman behar izan zuen, osaekomi batengatik galtzeko. Guztien kasuan, puntu baliagarriak bildu izan zituzten azken sailkapenera begira.

Zer egitekorik ez da falta izango Aste Santuan

Aste Santua dator eta, ziur aski, eibartar askok herritik joateko aprobetxatuko dute beste toki batzuetan oporrez gozatzeko. Badira, ostera, egunok herrian pasako dituzten eibartarrak eta, hemen eta inguruan dagoen eskaintza ikusita, ez zaie plan ezberdinak egiteko aukerarik faltako.



Jaiegun hauetarako proposatzen dizuegun lehen plana egiteko ez zarete Eibartik irten beharko. Izan ere, 2021eko udan hasi zuten ekimenerekin jarraituz, herriko historia ezagutzeko bisita gidatuak eskainiko ditu Udalak Aste Santuan, Nerea Alustiza historialariaren eskutik.

Bisitak apirilaren 6an, 7an, 8an eta 10ean egingo dira, 18:30etik 20:00etara, eta doakoak izango dira. 6ko, 7ko eta 10eko bisitak gaztelaraz egingo diren bitartean, 7koa euskaraz egingo da.

Ibilaldia Eibarko garapen industrialean oinarrituko da, eta horren bidez azalduko da herriaren bilakaera. Bisitetan, Alustizak Eibar orain dela 100 urte nolakoa zen ulertzeko irudiak erakutsiko ditu eta gaurdainoko garapen historikoa azalduko du, Eibarko industriak edo gure herriak II. Errepublikaren aldarrikapenean izan zuen papera ahaztu gabe.

Ibilaldia Estazino kaleko tren geltokian hasiko da eta, Ariel etxea,

Krutzetaneko etxea, Ayerbeneko etxea (Casino Artista Eibarres-arekin edo iturriarekin), Errebal kalea, San Agustin, Bidebarrieta, Txirio kalea eta Fermin Calbeton kalea ezagutu ondoren, Untzaga plazan amaituko da, udaletxearen aurrean.

Bisitak doakoak izango diren arren, izena eman beharko da www.eibar.eus/bisitagidatuak webgunean agertzen den formularioa betetz edo Udalera telefonoz deituz (08:30etik 15:00etara). Izena emateko epea apirilaren 5era arte egongo da zabalik. Bisita bakoitzean, gehienez ere, 15 lagunek hartu ahal izango dute parte eta, muga hori bete ondoren, izen-ematea itxi egingo da.

Euskaraz irakurri eta jolastu

Oporrak etxean gozatu nahi dutezentzat, Juan San Martin Liburutegiak familian euskaraz jolasteko eta irakurtzeko gida prestatu du. Gida Udalaren webgunean aurkitu daiteke (www.eibar.eus/eu/kultura/euskara/euskaraz-hezi/familian/



Eibarko historia ezagutzeko bisita gidatuak Estazino kaleko tren-geltokitik hasiko dira.

udaberriko-gida) eta, bertan, haur txikienetarik hasita 12 urtetik gorakoentzako gomendioak aurkitu daitezke.

Dolmenen ibilbidea

Eskualdera begira jarrita, hainbat irteera egiteko aukera dago Debarrean. Hemendik oso hurbil dugu, adibidez, Dolmenen Ibilbidea (PR-Gi 94) eta hura ezagutzeko hamabi bisita gidatu eskainiko dituzte. Lehenengoa apirilaren 9an egingo da (euskaraz), bigarrena 14an (gaztelerez), hirugarrena maiatzaren 7an (euskaraz), laugarrena 21ean (gaztelerez) eta hurrengoak aurrerago (www.debarrenaturismo.com webgunean daude jarrita data guztiak).

Ibilbide gidatuak 9 kilometro ditu, Karakatetik hasita Irukuru-tzetaraino (joan-etorria) eta lau ordu inguru behar dira hura egiteko. “Edertasun handiko paisaiak

Aste Santuan herriko historia ezagutzeko bisita gidatuak egingo dira Eibarren Nerea Alustizaren eskutik

zeharkatzen dira ibilbidean eta balio arkeologiko handiko interesgu-neak aurki daitezke bertan”, diote antolatzaileek. Horrela, mendilerroan historiaurreko monumentu ugari dago, hala nola, Neolitoko eta Brontze Aroko tumuluak, trikuharriak eta zutarri bat. Antzina, Dolmenen Ibilbidea Deba eta Urola ibaien bailaren arteko igarobidea zen; gaur egun arrasto anitz aurki

daitezke bertan. Ibilbidea erraza eta malda gutxikoa da, familian egiteko aproposa.

Bisitak Karakateko aparkalekutik ateratzen dira, goizeko 10:00etan. Bisitaren prezioa helduentzat 5 eurokoa izango da; 12 urtetik beherakoentzat, aldiz, 3,5 euro. Mendian ibiltzeko arropa, oinetako egokiak, ura eta jateko zerbait eramatea gomendatzen dute. Eguraldiaren arabera, txapela, eguzki-krema edo eta txubaskeroa kontuan hartu beharoko dira.

Geoparkeko irteerak

Geoparkeak, bere aldetik, eskaintza zabala prestatu du Aste Santurako. Bihar, adibidez, sei irteera egiteko aukera egongo da. Batetik, ‘Irteera geologikoa’ delako ekimena dago, 10:15etik 13:30era (gaztelerez). Txangoa Zumaiako turismo bulegotik hasiko da eta Geoparkearen sekretuak ezagutzeko balio

Debarreneko historiaz eta paisiaz gozatzeko aukeraz gain, festarako tokia ere egongo da



Goian, flyscha. Behean, Mutrikuko Berdel Eguna.

du, oinez lehendabizi eta itsasontziz gero. Gidari espezializatu batek geologoaren jardueraren berri emango du eta harkaitzetan jasota gelditu diren hainbat gertakari ulertzen lagunduko du, hala nola dinosauroen desagertzea eta klima-aldaketak.

'Flyscha, begirada batean' itsasontzi-ibilaldiarekin Deba-Zumaia biotopo babestua ezagutzeko aukera egongo da, 11:30ean (euskaraz), Zumaian hasita. Bertan flyscharen labar ikusgarria ezagutu ahal izango dira, 50 milioi urtetik gorako historia daukatenak.

Beste aukera bat Zumaiaiko Algorrri hondartza ezagutzeko txangoa egitea da. Itsas irteera labur honek Geoparkeko kostaren edertasuna erakusten du; batez ere, Zumaiaiko flyscheko gune ikusgarrienak.

Flyscha hobeto ezagutzeko, 'Flyscharen ibilbidea' izeneko irteera proposatzen du Geoparkeak. Horretarako, joan-etorriko nabiga-

zioa egingo dute Zumaia eta Mutriku artean, Debatik pasatuz, Geoparkeko kosta ikuspegi geologikotik eta kulturaletik ezagutzeko.

Mutrikun Nautilus Ikasgune Geologikoa bisitatzeko aukera dago, bertan dagoen amonite-fosilen bildumaz gozatzeko. Ondoren, barkuan Saturraran hondartzara joango da txangoa, bertan kostalde honetako flysch beltza agerian baitago.

Mutrikutik mugitu gabe, 'Zazpi hondartzak' izeneko irteera egiteko aukera dago. Bertan, itsasontziz irteno dira flysch beltzaren labarrak ezagutzera Mutriku eta Saturraran go hondartzen artean.

'Mutriku marinela' izeneko irteerarekin kostako hirigune historikoa ezagutzeko aukera egongo da, bertako etxe nabarmen eta jauregiekin. Eta ez da urrun joan behar beste irteera batez gozatzeko, Mutrikuko olatu planta bisitatzeko aukera ematen baitu Geoparkeak. Bertan

dago olatuen energia aprobetxatzen duen munduko lehen planta komertziala, 2011n sortua.

Bisita gehiago ezagutzeko, geoparkea.eus webgunean aurkitu daitezke.

Berdel Eguna

Bisitak egiteaz gain jaiaz gozatzeko gogoia edukiz gero, Mutrikun bertan egongo da aukera bihar bertan. Izan ere, Berdel Eguna ospatuko da eta egun osoko egitaraua prestatu dute horretarako.

Goizean haurrentzako arrantza tailerrak, belauntzien arteko txapelketa, merkatu txikia (Mutrikuko eta Debarreneko ekoizleekin), artisau eta sortzaileen azoka, herriko abesbatzen kontzertua, berdel pintxo dastaketa eta trikitilariak egongo dira. Gero, 17:15ean, Berdel Eguneke lehiaketa egingo da eta, egunari amaiera emateko, Belarri Fuckers eta Delirium Tremens taldeek kontzertua eskainiko dute.



Eguen Zuri argazki lehiaketako lanen erakusketa

Barixaku arratsaldean banatu zituzten Arrate Kultur Elkartek antolatutako XXV. Eguen Zuri argazki-lehiaketako sariak, bertara aurkeztutako lanen erakusketa Topalekuan zabaltzearekin batera. Lehiaketaren edizio honetako lehen saria Fernando Retolaza Loidik irabazi du, "Irulegin" izenburuko lanarekin. Bigarren saria, berriz, Bakarne Elejalderen "Taper xex" lanari eman diote, eta hirugarrena Pedro San Romanek eraman du, "Surrandiak" izeneko argazkiarekin. Erakusketa apirilaren 23ra arte egongo da ikusgai.



"Ser o no ser" lanak itxiko ditu Antzerki Jardunaldiak

Madrilgo Okapi Producciones konpainiak gaur 19:00etan Coliseon taularatuko duen "Ser o no ser" komediarekin agurtuko ditugu gaur XLVI. Eibarko Antzerki Jardunaldiak. Juan Echanovek zuzendutako lan horretan, Echanove berarekin batera, Lucia Quinta, Angel Burgos, Gabriel Garbusi, David Pinilla, Eugenio Villota eta Nicolás Illora antzezleak arituko dira oholtza gainean. 1939ko abuztuan Varsovia (Polonia) girotutako lan honetan Hitlerren eta nazismoaren mundu mailako mehatxua satirizatzen dute. Sarrerak 15 euro balio du.



Barredromoaren bigarren edizioa antolatu du UEU-k

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) zientziari buruzko umore bakarriketak antolatu ditu apirilaren 20rako, 18:00etan, Markeskua jauregian. Horrela, umorea zientzia dibulgatzeko modu eraginkorra izan daitekeela frogatu nahi dute. Barredromoaren bigarren edizio honetan ere Idoia Torregarai UEUko komunikazio-arduraduna ibiliko da aurkezle lanetan eta Begoña Altuna (Euskal Filologian Doktorea), Aitor Bengoetxea (Zuzenbidean Doktorea eta UEUko zuzendaria), Nerea Blanco (Politika Zientziak eta Kudeaketa Publikoan doktoregaia), Aroia Burguete (kimikan doktoregaia) eta Josu Lopez Gazpio (Kimikan Doktorea) izango dira hizlariak. Bertaratzeko asmoa duenak aurretik izena eman beharko du, komunikazioa@ueu.eus helbidean.



Eibarko Artisten Elkartearen lanak ikus daitezke Portalean

Gaur arratsaldeko 19:00etan inauguratuko dute Eibarko Artisten Elkartearen erakusketa, Portalean. Beste batzuetan bezala, elkarteko hainbat kidek egindako artelanak ikusteko aukera izango da, apirilaren 30era arte. Gaur hasiko den erakusketa honekin batera, atzo zabaldu zuten "Gazte ARTEan", Eibar BHI-ko ikasleek lanak biltzen duen erakusketa bisitatu daiteke, aldi berean.



Emakume artisten lanak ikus daitezke Andretxea berrian

Gaur eguerdian inauguratu dute Isasi kalean dagoen Andretxea berria, Eibarko emakume artistek egin-dako lanekin prestatu duten “Andretxea: Gure Gela Propioa” izeneko erakusketa zabaltzearekin batera. Mireia Agirrebeña Ubera, Virginia Arakistain Ariznabarreta, Maite Arriaga Arrizabalaga, Marina Barrena Ortuoste, Maialen Belaustegi Lapeyra, Jone Bengoa Urizar, Bakarne Elejalde Garitagoitia, Esther Galarza Berasuetza, Natalie Hickey, Leire Kareaga Azkarraga, Satur Peña Puente eta Esperanza Zabala Garcia artisten lanak apirilaren 30era arte egongo dira ikusgai, Damaskinatzaileak izeneko gelan.



Feminismoari eskainitako arratsaldea Goi Argin

Martitzenean Goi Argi emakume elkarteak omen-du zituzten Neledantza dantza taldekoek, Virginia Wolfen “Una habitación propia” lana oinarri modura zuen ikuskizunarekin. Elkarteko andrekin pozarren ikusi zuten dantza saioa eta, jarraian, Bilboko La Sinsorga kulturagune feministaren berri jaso zuten, Andrea Moimotiok eta Irantzu Varelak egingako aurkezpenean.



Familien arteko ginkana egingo da maiatzean

Iazko bidetara jarraituz, eta iazko arrakasta ikusita, familien arteko ginkana antolatuko du berriro ...eta kitted! Euskara Elkartek. Maiatzaren 5ean, barixakua, egingo da eta Lehen Hezkuntzako ikasleek hartu ahal izango dute parte, beti ere helduek lagunduta. Izenematea apirilean zabalduko da eta egun batzuk lehenago emango ditu jakitera elkarteak lehiaketan parte hartzeko baldintzak.

Plazara Dantzara saioa egingo da gaur 19:00etan Errebal Plazan

Gaur arratsaldeko 19:00etan hasiko da Plazara Dantzara dantzaaldaren saio irekia Errebal Plazan. Kezka dantza-taldearen eta Udaleko Kultura sailaren eskutik egingo den saioan nahi duten guztiek izango dute dantzan aritzeko aukera, Quico Puges (Eibar) eta Arkaitz Miner (Errenteria) musikariek zuzenean eskainiko dituzten doinuaren erritmora.

Familian euskeraz jolasteko gida

Oporretan etxean gozatu nahi dutenentzat, Juan San Martín Liburutegiak eta Udaleko Euskara Sailak familian euskeraz jolasteko eta irakurtzeko gida prestatu dute. Gida Udalaren webgunean eskuratu daiteke (www.eibar.eus/eu/kultura/euskara/euskeraz-hezi/familian/udaberriko-gida) eta, bertan, haur txikienetarik hasita 12 urtetik gorakoentzako gomendioak aurkitu daitezke. “Opor garaian seme-alabekin egoteko denbora gehiago dugunez, euskara eta irakurmena indartzeko ere une egokia da”, adierazi dute.



Martxoak 31 / Apirilak 13

BARIXAKUA 31

INAUGURAZIOA

19:00 Eibarko Artisten Elkartearen erakusketa. Portalea.

PLAZARA DANTZARA

19:00 Plazara Dantzara dantzaldia, Quico Puges (Eibar) eta Arkaitz Miner (Errenteria) musikariek lagunduta. Ekitaldi irekia. Errebal Plaza.



Plazara dantzara

Martxoak 31 marzo 19:00
Errebal Plaza

ANTZERKI

JARDUNALDIAK

19:00 "Ser o no ser" (Okapi Producciones). 15 euro (10,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



DOMEKA 2

TXIRRINDULARITZA

09:00 52. Valenciaga Oroitzarrea. Untzaga.



EKITALDI POLITIKOA

12:30 Debabarrenako EH Bilduren alkategaiak egongo dira, Maddalen Iriarte Gipuzkoako EH Bilduren Ahaldungaiarekin batera. Errebal Plaza.



Ekitaldia

EGUENA 6

BISITA GIDATUA

18:30/20:00 "Made in Eibar" doako bisita gidatua. Gazteleraz. Tren-geltokian hasiko da..

BARIXAKUA 7

BISITA GIDATUA

18:30/20:00 "Made in Eibar" doako bisita gidatua. Euskeraz. Tren-geltokian hasiko da.



ZAPATUA 8

TXIRRINDULARITZA

14:03 Itzuliaren 6. Etapa, Eibar-Eibar. Irteera, Saturixo baseria.

BISITA GIDATUA

18:30/20:00 "Made in Eibar" doako bisita gidatua. Gazteleraz. Tren-geltokian hasiko da.

DOMEKA 9

TXIRRINDULARITZA

08:00 Itzulias Basque Challenge. World Tour Ibilbidea eta Iraupen Erdiko Ibilbidea. Eibar-Eibar.

ASTELEHENA 10

18:30/20:00 "Made in Eibar" doako bisita gidatua. Gazteleraz. Tren-geltokian hasiko da.W

ERAKUSKETAK

Apirilaren 23ra arte:

- **"XXV. EGUEN ZURI"** argazki-lehiaketako lanak. (Topalekua).

Apirilaren 30era arte

- **"ANDRETXEIA, GURE GELA PROPIOA"**, Eibarko 12 emakume artistaren lanak. (Andretxea).
- **"Gazte ARTEan"**. Eibar BHI. (Portalea).
- **"EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA"**. (Portalea).
- **"EIBARKO SOZIALISTEN 125 URTEAK"**. (Herriaren Etxea).

Ekualdeko Agenda

SORALUZE

31n (BARIXAKUA)
ANTZERKIA
20:00 / Herri Antzokia
"Vida", La Red Teatro

ERMUA

31n (BARIXAKUA)
UMOREA
20:30 / Ermua Antzokia
"Del deporte también se sale", Javi Sabcho

DEBA

31n (BARIXAKUA)
KONTZERTUA
22:00 / Kultur Elkartea
XAHU + Jazz jam session (KulturEkin kontzertua)

ELGOIBAR

1ean (ZAPATUA)
KONTZERTUA
19:00 / Kultur Etxea
Ripoll eta Islabat

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **1ean:** 19:45, 22:30
- **2an:** 20:00
- **3an:** 19:30

“El hotel de los líos”
KOMEDIA



2023/Espainia/88'
Zuzendaria: Ana Murugarren
Aktoreak: Jose Mota,
Pepe Viyuela, Paz Padilla
Spin-off/Familiarentzako

2 ARETOA

- **1ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **2an:** 17:00, 20:00
- **3an:** 19:30

“Bajo terapia”
KOMEDIA DRAMATIKOA



2022/Espainia/93'
Zuzendaria: Gerardo Herrero
Aktoreak: Malena Alterio,
Alexandra Jimenez, Fele Mtnez.
Talde-terapia

ANTZOKIA

- **1ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **2an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **3an:** 19:30

“Dungeon & Dragons”
FANTASTIKOA



2023/AEB/134'
Zuzendaria: John Francis Daley
Aktoreak: Chris Pine, Michelle
Rodriguez, Rege-Jean Page
Abenturak/Dragoiak

ANTZOKIA

- **1ean:** 17:00
- **2an:** 17:00

“Lau ahizpa magikoak”
FAMILIARRA



2020/Alemania/97'
Zuzendaria: Sven Unterwaldt
Aktoreak: Lalia Padotzke,
Hedda Erlebach, Lilith Julie
Magia/Urtebetetze ospakizuna



Begoña Argote Gonzalez

2023/03/28

Ipuruako kuadrillakoek ez zaitugu ahaztuko



FUNEUSKADI
Funeraria

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

TANATORIO ERREHAYO
ERKOILAN

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Elbarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marquis de Valdespina, 16</p>
---	---

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **JON**, gaur 5 urte bete dozuz-eta. Segi holako alai! Laztan haundi bat etxeko danon eta, bereziki, zure arreba Aneren partez.



Zorionak, **IRATI!** Apirillaren 6xan 3 urtetxo beteko dozuz-eta. Asko maite zaittugu. Musu haundi bat aitta, ama eta Unairen partez.



Zorionak, **JULEN!** Barixakuan zure 6 urtiak ospatuko doguz-eta. Jarraitu jatorra eta alaixa izaten. Besarkada bat-famelixaren eta Anderren partez.



Zorionak, **IRAIA**, apirillaren 6xan 12 urte beteko dozuz-eta. Ondo ondo ospatu. Musu bat famelixa guztiaren eta, batez be, Aneren partez.



Zorionak, **ION** eta **VEGA!** Domekan 3 urte beteko dozuez-eta!!!! Musu haundi bat etxeko guztion partez!



Zorionak, **LIZAR**, domekan 5 urte haundi egingo dozuz-eta! Asko maitte zaittugu!

Urtzi Antxustegi (688 649 837)
09:30 – 19:00

EROSKI-n **garbibox**
gaito-gorbiketak
limpieza -neteak

ZERBITZU BERRIAK: sabai edo tetxu-konponketak, tapizatu-konponketak, etxeko garbiketak une zehatzetan...

PUBLI RESA
objeto publikitario

- merchandising
- serigrafia
- lanerako erropa

www.publiresa.com
publiresa@publiresa.com
943 701 497 / 615 799 419
Amagín, 3-5 behea

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

• Etxebizitza alokagai Deban uda eta udaberri sasoiari (hila-beteka edo asteka). 3 logela, 2 bainugela eta 2 balkoi eder. Bista paregabeak. Igogailua 0 kotatik. 657795876 (arratsalde).

1.2. Errentan

• Pisua alokagai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldeta eta komuna. Kanpora begira eta oso argitsua. Guztiz berriztuta. Igogailuarekin. Bikote baten-dako aproposa. 637587823.

- Pisu txikia alokagai Eibarren. 2 logela. Igogailurik gabe. 500 euro. 627794822 / 687078777 (Whasap ez edo arratsalde).
- Pisua konpartituko nuke edo logela bat hartuko. 646131301.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. 642855788.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko (titulu sozio-sanitarioa) eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. 627230784.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631309160.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 624956340.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko (titulu sozio-sanitarioa). Baita asteburuetan ere. Orduka. 654210024.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 632980833.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 631722031. Fatima.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak (titulazioarekin) edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. 685724861.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 669181717.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxe-garbiketarako egiteko. 608401590.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko (tituluarekin). Esperientzia. 632893312.

- Neska eskaintzen da arratsalde umeak zaintzeko. 649025614.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Externa. 605402030.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin, baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Orduka. 667060292.
- Neska euskalduna eskaintzen da etxeetan lan egiteko. Esperientzia handia. Euskal sukaldaritza tradizionala eta osasuneko. Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonentzako Arretako teknikari titulua. 699473761.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 675625362.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. 613073936.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. 688489881.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ikastaro sozio-sanitarioarekin) eta garbiketarako egiteko. 643398596.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientzia handia. 655094780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazio ziurtagiriarekin). 602490595.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia handia. 692197497.

4.2. Langile bila

- Odontologoa behar da klinikabatean lan egiteko. Interesatuek curriculum-a bidali: hortzklinika.06@gmail.com

- Pertsona euskalduna behar da etxeko lanetarako eta tarteka umeak zaintzeko. 619640764.
- Neska euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 699024156.
- Kamarera/o behar da pintxo taberna baterako. 661955980.
- Emakumea behar da goizez bi ume txiki zaintzeko. 633647568.

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

- Kontabilitate klaseak emateko pertsona behar da. Administrazio Kudeaketa modulorako. 669719349.

5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- 1'50eko ohea eta 0'50eko bi mesilla salgai. Baita bainugelako altzarria eta lababoa (0'62x0'47), ispilu eta apliketkin. Egoera onean. 683560258.
- Egongela-jangelako kristalezko mahai handia eta egurkoloreko eskritorioa salgai. Ia berriak. Prezio interesgarria. 606882043.

MGEP

MONDRAGON GOI ENOLA POLITEKNIKA
JOSE MARÍA ANSOAINEBARRIETA, 4008. E.

Go! Mailako Heziketa

Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Sistema Elektrotekniko **Berria!** eta Automatizatuak
- | Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industriala
- | Automatizazio eta Robotika Industriala

Espezializazio

Ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa **Berria!**

ATE IREKIAK

#LanerakoGertu



Apirilak 1 11:00etan

Maiatzak 6 11:00etan



mondragon.edu/lanbideheziketa

ERRENTA AITORPENA? AURTEN ERE, DUDA BARIK

NOLA?

Autolikidazio proposamena onartzerakoan, esan euskaraz egin nahi duzula.

Mekanizatua egiteko ordua hartzerakoan edo aitortpena egiterakoan, esan euskaraz egin nahi duzula.

Internet bidez jaitsi errenta programaren euskarazko bertsioa, eta hobetsitako hizkuntza atalean aukeratu euskara.

Aholkularitzan esan euskaraz egin nahi duzula.

→ **EUSKARAZ!!!**

EIBARREN BAIETZ AURTEN
1650!

Astindu ohiturak!!

**Ogasunarekin
euskaraz**

Eibarren
AKEBAI

gremioen gida



943-206776

ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. SERVICIOS DE
CONSEJO Y
MANTENIMIENTO



CONSEJEROS DE
MANTENIMIENTO
INDUSTRIAL
E.I.T.
teléfono: 943 206 776 - www.ite.943 206 776
A.T.T. ZIBARRA S.L.P.
Barrena, 6 - beheko esk.

KRISTALAK

ACHA *Kristaldegia*
HELBIDE
BERRIA : J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com ERAKUSKETA
eta faxa: 943 203 903 Arkitxaneko Zubian

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko arotzgia
baita toloak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Orkizu 20an (Tel. 943 12 74 01)

IGELTSEROAK



Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobear
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabiloia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak

Pinturak / Dekorazioa

Errebal, 21 www.bagliettoelbar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoelbar@gmail.com

Tel. 667 54 89 16



KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

ELEKTRIZITATEA

THELE CER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
argintziak
610 532 922 www.thelecer.com